

21 AGENDA

2017ko aldizkaria



Vitoria-Gasteiz
garapen jasangarrirantz



Aurkibidea

Sarrera.....	3
Vitoria-Gasteizko iraunkortasun adierazleen sistema	6
Erabilere-mua: diagnostiko sektoriala	7
HIRIKO KUTSADURA.....	8
ZIRKULAZIOA ETA GARRAIOA.....	13
URA.....	21
ENERGIA	27
INDUSTRIA.....	33
HONDAKINAK	39
HIRIGINTZA ETA LURRALDEA.....	43
NATURA ETA BIODIBERTSITATEA.....	51
INGURUMEN OSASUNA ETA ARRISKUAK.....	57
INFORMAZIOA, HEZKUNTZA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA	63
INGURUNE SOZIOEKONOMIKOA.....	69
Ingurumen Kontseilu Sektoriala	80

Argitaratzailea: Vitoria-Gasteizko Udala
Zuzendaritza teknikoa: Udaleko Ingurumen Arloa
Diseinu, maketazioa eta marrazkiak: Komunikazio Bulegoa

SARRERA

1998an, Gasteizko 21 Agendaren prozesua bultzatzeko erabakia onartu zuen udalbatzak aho batez, 21 Programaren ildotik. Munduan garapen iraunkorra sustatzeko asmoz sortu zen 21 Programa 21 hori, “Lurraren Gailurra” ere deitu izan zitzaion Nazio Batuen Ingurumenari eta Garapen Iraunkorrari buruzko Nazioarteko Konferentziaren eraginez —Rio de Janeiro, 1992—, garapen iraunkorrean agintari lokalei dagokien protagonismoa nabarmendu baitzen bertan.

Harrezkero, Ingurumenaren Mundu Egunarekin bat eginik —ekainean— “Tokiko 21 Agendaren buletina - Gasteiz garapen iraungarrirantz” argitaratzen du Gasteizko Udalak urtero, non hainbat adierazleren urteko berrikuspenaren emaitzak jasotzen baitira, informazioa herritarren artean zabaltzeko, baita udalerrriak iraunkortasunaren bidean aurrera egin dezan gauzatu diren jarduera nabarmen-garrienak ere.

Apirilaren 27 eta 29an Euskal Herrian egin zen Hiri eta Herri Iraunkorren Europako 8. Konferentzian aurkeztutako Euskal Adierazpena: Bide Berriak Europako Hiri eta Herrientzat agiririari atxiki zaio Gasteizko Udala 2016an. Europako gizartea eraldatzeko dokumentu markoa da, Europaren errealitate soziala, ekonomikoa eta ingurumenaren arlokoaren jakitun izan dadin hartara, eta arduraz joka dezan. Hamar helburu finkatu ziren adierazpenean, udalerrri produktibo, iraunkor, errisilente, bizigarri eta inklusiboak sortzeko, eta hiru esparrutan —soziokulturalean, sozioekonomikoan eta teknologikoan— biltzen diren 15 ibilbidetan garatu ziren.

Gainera, hiri-iraunkortasunaren marko orokorrean, Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarean —Udalsarea 21— lan egin da, iraunkortasun lokalaren adierazleen sistema berri bat definitzeko asmoz. Buletin honetan jasotzen den adierazleen sistemaren osagarri nabarmena suertatuko da hori, segurki. Lau esparru hartzen ditu. Ingurumenari dagokionez, 110 adierazle biltzen ditu guztira, hainbat konturen inguruan: ura, hondakinak, energia, mugikortasuna, lurraldea, lurra eta biodibertsitatea. Esparru sozialeko 46 adierazleek, berriz, beste hauekin dute zerikusia: osasuna, ongizatea, gizarte-inklusioa eta hezkuntza. Esparru ekonomikoan, lan-merkatuarekin eta garapen ekonomikoarekin zerikusia duten 15 adierazle zehazten dira. Eta, azkenik, gobernantzari dagokionez, beste 20 adierazle finkatzen dira, gai hauen inguruan: gardentasuna, sentsibilizazioa eta komunikazioa, eta herritarren partaidetza. Guztira 190 adierazle dira, iraunkortasunerako bidean udalerrriak zenbateraino aurrera edo atzera egiten duen neurtzeko, urtero.

Telefonia mugikorreko antenek sortzen duten kutsadura elektromagnetikoari dagokionez, irrati-frekuentziak monitorizatzeko sarea berregokitzea erabaki da 2016an. Horrenbestez, lehendik zeuden 6 neurketa-tresnak eguneratu, kalibratu eta mantentzeko kontratazioa egin da, 2017ko lehen seihilekoan lehendik zeuden lekuetan instala daitezten.

Mugikortasunari dagokionez, nabarmentzekoa da 2016ko uztailean onetsi zela garraio publikoaren eskaintza egokitzeko eraikuntza-proiektua idazteko hitzarmena, garraibide publiko kolektibo eta azken miliakoen sistema multimodal integratu eta osorik elektrifikatua sortze aldera. Gainera, ziklisten ezbehar-tasari buruzko azterketa eguneratu egin da, 2013-2015 aldiari dagozkion datuak gehituz, eta atal berri bat txertatu da, non berriaz aztertzen den oinezkoen ezbehar-tasa.

Garraio publikoa erabili duten bidaiariei gagozkielarik, beste behin ere inoiz baino kopuru handiagoak lortu dira, aurreko urteetako ildo beretik. Izan ere, 14,2 milioi bidaiari izan ziren hiriko autobusetan, eta, horri tranbia erabili zuten bidaiarien kopurua —7,7 milioi— gehituz gero, garraio publikoaren erabilzaileak ia 22 milioi izan zirela esan liteke, hau da, % 2tik gorako igoera, aurreko urtearen aldean. Esan beharra dago TUVISAren autobusak berritzeko prozesuari ekin zaiola 2016an, eta 10 autobus berri erosi direla, zein 2017an gehituko baitzaizkio egungo flotari.

Hamaseigarren aldiz izan da Gasteizen Mugikortasun Iraunkorraren Europako As-
tea, irailaren 12tik 22ra bitartean, “Energia mugimenduan” lemarekin, Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planak sustatutako aldaketak go-
goan, eta Koroatzearen auzoaren birgaikuntza energetikorako SmartEnCity proie-
ktuarekin batera espazio publikoan egingo den eraldaketari ere keinu bat eginez.

Koroatzearen auzoa birgaitzeko proiektu horri dagokionez, partaidetza-prozesu bati ekin zaio 2016an, auzoan bizi diren herritarrek erabakiak hartzen parte har dezaten, beren auzoko espazio publikoa nolakoa izatea nahi duten adierazten du-
telarik. Gainera, etxebizitza-eraikinen birgaikuntza energetikoaren proiektua ga-
ratzeko alderdi juridiko, tekniko eta ekonomikoak lantzen jarraitu da, baita auzoan
jarri nahi den barrutiko berokuntza sarea ere.

Uraren arloan, Futura Planeko jarduerak emaitzak ematen jarraitzen dute, etxee-
tako kontsumoa biztanleko eta eguneko 106 litro ingurura murriztea lortu baita
dagoeneko, eta ur-eskari osoak beherako errekor berria erregistratu baitu.

Energiaren arloan, argiteria publikoan eta udal instalazioetan energia-aurrezpe-
na eta -eraginkortasuna sustatzeko jarduerak abian jartzen jarraitu da. Argiteria
publikoari dagokionez, egin diren optimizatze-lanak direla medio, LED teknolo-
giako argiteria jarri da lehendik zegoenaren ordean hiriko hainbat lekutan, eta urte-
ko kontsumoa milioi bat kWh-tan murriztea lortu da hartara.

Hondakinei dagokienez, biztanleko kilogramo baten inguruan egonkortu da etxeetan eta merkataritza-establezimenduetan sortzen direnen tasa.

Halaber, hondakinen arloan, lehenengo urratsak eman dira 2016an Arabako lurralde historikoak hiri-hondakinen prebentzio eta kudeaketarako erreminta bakarra eduki dezan, Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak eta Arabako gainerrako koadrilek batera lan egingo duten plan berri bat landuz. 2017an garatuko da plana lantzeko prozesua, eta partaidetza-fase bat izango da lehenik, zeinetan interesaturik dauden eragileak inplikatzeari aurreikusten baita, hala nola ingurumenaren inguruan diharduten taldeak, baita herritarrak ere, oro har.

2016an, lehenengo aldiz, Jundizko tratamendu mekaniko biologikorako lantegian Araba lurralde historikoko administrazioek bildutako hiri-hondakin ia-ia guztiak tratatu dira, eta, hartara, Gardelegiko zabortegira tratatu gabeko hondakinik bota zedila ekidin da.

Natura zaindu eta biodibertsitatea babestearen arloan, Biodibertsitatea Kontserbatzeko Estrategia Lokalean onetsitako ekintzak abian jartzen jarraitu da. Horrela, udalerrian ditugun Natura 2000 Sareko espazioetako biren —harizti-irlak eta Gasteizko Goi Mendiak— babes eta kudeaketarako dokumentuei behin-betiko onespena eman zaie, eta Zadorra ibaiko eta Gasteizko Goi Mendietako kontserbazio-eremu berezietako dibertsitatea areagotzeko eta mehatxatutako espezieak babesteko proiektuak abian jarri dira.

Gasteizko hiri-azpiegitura berdea inplementatzeari dagokionez, Lakuabizkarreko azpiegitura berdearen eraikuntzarekin jarraitu da —2015ean jarri zen abian proiektua, zona horretako hogeita lau lursail biziberritzeko—. Lan hauek egin dira funtsean: lurrak mugitu, lorezaintza-lanak, orubeak egokitu, heskai bertikalak jarri, fruitu-arbolen baratzeak sortu, erdibitzailuetan landareak aldatu eta beste azpiegitura berde batzuk osatu. Hiri-paisaia aldatu eta naturaren onurak hiri barruan baliatzea da helburua, espazio horien dibertsitate biologikoa handituz, leku horien arteko konektibitate ekologiko eta espaziala hobetuz eta lursail horien balioa handituz.

Esparru sozialean, nabarmentzekoa da Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren hitzarmen orokorra izenpetu zela 2016an, gizarte-zerbitzuen alorreko eskumenak berrantolatze aldera.

Bestalde, nabarmendu beharra dago Gizarte Politiken Sailaren Plan Estrategikoa landu dela, Gasteizen bizi diren pertsonen autonomia eta gizarte-ongizatea lagundu eta faboratzeko helburuarekin, erantzukizuna, eskumena eta ardura oinarritzat harturik.

Arlo sozioekonomikoan, Itun Berdearen alde egiten jarraitu da, ingurumen-aldagaiak enpresen errentagarritasuna hobetzeko bitarteko gisa integratzearen abantailak zabalduz eta horren inguruan sentsibilizatuz. Beste 60 enpresa atxiki zaizkio Itun Berdeari, eta 137k berriro dute atxikipena; hartara, guztira 883 ziren atxikitako enpresak ekitaldiaren bukaeran. Itun Berdea Sarien II. ediziora 25 jardunbide egoki aurkeztu dira, eta orobat egin da V. Topaketa, zeinetan 92 enpresek eman baitzuten izena.

Azkenik, ekonomiaren eta ingurumenaren konfluentziaren arloan, esan beharra dago Udalak ekonomia zirkularreko proiektuak lantzen jarraitzen duela, udalerriari dauden enpresen industria-hondakinen kudeaketa efizientea lortze aldera. Horrela, 2016an, "Ekonomia zirkularra Gasteizko metalaren sektorean" proiektu pilotua burutu da, sei enpresari beren neurria moldatutako aholkularitza eskaini zaielarik, hartara sektorean sortzen diren hondakinak murriztu eta aprobetxatzeko aukerak aztertu ahal izateko.

VITORIA-GAZTEIZKO IRAUNKORTASUN ADIERAZLEEN SISTEMA

Udalbatzarrak, 2004ko maiatzaren 26an bildurik, aho batez onartu zuen Vitoria-Gasteizko Tokiko Agenda 21 prozesuko iraunkortasun adierazleen sistemaren berrikuste eta hedatzea. Onarpen honen ondorioz, hasieran finkatutako 21 adierazle multzoa 35 adierazle izatera igaro zen.

HIRIKO KUTSADURA

1. Airearen kalitate "hala-moduzkoa", "txarra" edo "oso txarra" erregistratzen den egun kopurua
2. Urtean biztanleriari emandako ozonorako informazio-atalasea gainditzen den aldien kopurua
3. Eguneko 24 orduetan kalitate-helburu gisa desiragarri litzatekeen zarata-maila baino handiagoa jasaten duten kaleetan bizi den biztanleria
4. Gauean kalitate-helburu gisa desiragarri litzatekeen zarata-maila baino handiagoa jasaten duten kaleetan bizi den biztanleria

ZIRKULAZIOA ETA GARRAIOA

5. Tokiko mugikortasuna eta bidaiariaren garraioa
 - 5a. Biztanle bakoitzak egunero egiten dituen bidaiak kopuruaren batez bestekoa
 - 5b. Biztanle bakoitzak egunean egiten duen bide-luzeraren batez bestekoa
 - 5c. Biztanle bakoitzak egunean egiten dituen bidaien batez besteko iraupena
 - 5d. Bidaia sistematikoak eta ez-sistematikoak ehunekotan
 - 5e. Garraioibide diferenteen erabilera ehunekotan
6. Tranbia eta hiri autobusa erabiltzen duen bidaiari kopurua
7. Trafiko intentsitatea
8. Garraio-azpiegiturera bideratutako azalera

URA

9. Hiriak Zadorra ibaiari ematen dion karga organikoa
10. Ur zikinen arazketa
11. Uraren etxeetako kontsumoa
12. Ur-eskari osoa
13. Ur-eskari osoaren sektore-banaketa
14. Ur edangarriaren banaketa-sarearen errendimendua

ENERGIA

15. Argindar eta gas naturalaren kontsumoa etxeetan
16. Efizientzia energetikoko ziurtagiria lortu duten etxebizitzien kopurua

INDUSTRIA

17. Ingurumenaren kudeaketarako ziurtagiria duten enpresak

HONDAKINAK

18. Etxe eta saltokietako zaborrak biztanle eta eguneko
19. Hiriko hondakin solidoen birziklapena

HIRIGINTZA ETA LURRALDEA

20. Oinarritzko zerbitzueterako eta gune publiko irekieta iristea
21. Lurraren erabilera jasangarria
 - 21a. Lur artifizializatu eta urbanizagarria
 - 21b. Lur abandonatuak eta potentzialki kutsatuak
 - 21c. Lurraren erabilera-intentsitatea
 - 21d. Garapen berrien kokapena
 - 21e. Hiri-azalaren zaharberritzea
 - 21.f. Landa-espazioa eta espazio naturala

NATURA ETA BIODIBERTSITATEA

22. Biodibertsitatearen kontserbazio egoera Vitoria-Gasteizko udalerrian (hegazti ugartasunaren indizea)
23. Nekazaritza ekologikoko teknikak jarraitzen dituzten lursailak
24. Ibaien egoera ekologikoa (BMWP' indizea)

INGURUMEN OSASUNA ETA ARRISKUAK

25. Erretzaileen ehunekoa (ohikoak edo noiz-behinkakoak)
26. Hiri barruko trafikoen kopurua urteko eta 1.000 ibilgailuko
27. Hiri barruan harrapatutako oinezkoen kopurua urteko eta 10.000 biztanleko

INFORMAZIOA, HEZKUNTZA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA

28. Ingurumen informazioari buruzko kontsulta kopurua
 - 28a. Ingurumen informazio edo dokumentazioaren eskuratzeak
 - 28b. Udaleko zerbitzu teknikoari zuzendutako ingurumen kontsulten kopurua
29. Eskola-umeen parte hartzea Vitoria-Gasteizko Udalak antolatutako ingurumen-heziketako jardueretan

INGURUNE SOZIOEKONOMIKOA

30. Herritarren gogobetetzea tokiko komunitatearekin
31. Garapenerako nazioarteko lankidetzara bideratutako udal aurrekontuaren ehunekoa
32. Garapenerako nazioarteko lankidetzara bideratutako udal aurrekontuko per capita gastua
33. Mendekotasun demografikoko tasa
34. Diru-sarerrak bermatzeko errenta jasotzen duten familien ehunekoa
35. Langabezia-tasa

ERABILEREMUA: DIAGNOSTIKO SEKTORIALA



HIRIKO KUTSADURA



JASANGARRITASUNEN HELBURU OROKORRA:

- HIRI INGURUNEN KUTSAGARRIEN MAILAK BEHERATZEA



AIREAREN KALITATEA

Aire garbia ezinbestekoa da hirritaren eta ekosistemen osasunerako. Horregatik, hain zuzen, funtsezkoa da jasangarritasunerako.

Erabilitako adierazleek hiriko atmosfera-kutsatzaile nagusien balioak aztertzen dituzte, nagusiki garraiotik, industrian erregai fosilak erabiltzetik eta berogailu-sistemetatik datozenak, eta indarrean dagoen araudiak ezarritako arrisku-maila edo atalaseekin alderatzen dituzte. Kontrol hori, gero eta neurketa-estazio gehiago dituen Kutsadura Atmosferikoa Zaindu eta Kontrolatzeko Sare Automatikoaren bitartez egiten da. Anlizatzen diren atmosfera-kutsatzaileak hauek dira: SO_2 , NO_2 , ozonoa eta PM_{10} .


1. Airearen kalitate "hala-moduzkoa", "txarra" edo "oso txarra" erregistratzen den egun kopurua

Datu iturria: Gasteizko Kutsadura Atmosferikoa Zaindu eta Kontrolatzeko Sare Automatikoa. Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saila

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurtze aldia: urtero

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Oso ona:	29 (7,9%)	Dat. gabe	Dat. gabe	20 (5.5%)	29 (7,7%)	64 (15,3%)
Ona:	191 (52,3%)	Dat. gabe	Dat. gabe	235 (64.4%)	223 (60,3%)	219 (61,9%)
Halamoduzk.:	141 (38,6%)	Dat. gabe	Dat. gabe	110 (30.1%)	111 (31,5%)	82 (22,5%)
Txarra:	4 (1,1%)	Dat. gabe	Dat. gabe	0 (0.0%)	2 (0,5%)	1 (0,3%)
Oso txarra	0	Dat. gabe	Dat. gabe	0 (0.0%)	0(0.0%)	0 (0,0%)



2. Urtean biztanleriari emandako ozonorako informazio-atalasea gainditzen den aldien kopurua

Datu iturria: Gasteizko Kutsadura Atmosferikoa Zaindu eta Kontrolatzeko Sare Automatikoa. Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saila

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurtze aldia: urtero

2011	2012	2013	2014	2015	2016
0	0	0	0	0	0

ZARATA-KUTSADURA

Zarataren inpaktuak eragin kaltegarriak izan ditzake gizakiaren osasun eta ongi-zaterako. Gizarte jasagarriak hiriaren funtzio nagusien (etxebizitza, lana eta mugikortasuna) nahasketa eskaini beharko luke, baina hiritarrei nazioartean gomen-datzen den zarata-maila baino handiagoa jasanarazi gabe.

Ibilgailuek kale eta errepedeetan eta trenak sortzen duten zaratak Gasteizko biztanleengan duen eragina zehaztu nahi du erabilitako adierazleak, ingurumen-hotsaren ebaluazio eta kudeaketari buruzko ekainaren 25eko 2002/49/CE Zuzentarauak definitutako markoaren arabera.

3. Eguneko 24 orduetan kalitate-helburu gisa desiragarri litzatekeen zarata-maila baino handiagoa jasaten duten kaleetan bizi den biztanleria¹

Datu iturria: 2005ko eta 2012eko Gasteizko Zaratzen mapak. Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saila

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurtze aldia: aldakorra

	2005		
Balio-tarteak dB (A)	65-69	70-74	>75
Kale eta errepedeetako zarata pairatzen duten biztanleak	65.298	22.166	935
Trenbideetako zarata pairatzen duten biztanleak	737	37	0
	2013		
Balio-tarteak dB (A)	65-69	70-74	> 75
Kale eta errepedeetako zarata pairatzen duten biztanleak	47.551	19.119	50
Trenbideetako zarata pairatzen duten biztanleak	1.251	405	0

4. Gauean kalitate-helburu gisa desiragarri litzatekeen zarata-maila baino handiagoa jasaten duten kaleetan bizi den biztanleria

Datu iturria: 2003ko eta 2005eko Gasteizko Zaratzen mapak. Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saila

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurtze aldia: aldakorra

	2005		
Balio-tarteak dB (A)	55-59	60-64	>65
Kale eta errepedeetako zarata pairatzen duten biztanleak	61.850	34.2030	1.964
Trenbideetako zarata pairatzen duten biztanleak	1.744	458	0
Aireportuko zarategatik kaltetutako biztanleria	22	0	0
	2013		
Balio-tarteak dB (A)	55-59	60-64	>65
Kale eta errepedeetako zarata pairatzen duten biztanleak	46.191	16.169	340
Trenbideetako zarata pairatzen duten biztanleak	1.892	716	7
Aireportuko zarategatik kaltetutako biztanleria	0	0	0

¹Zuzenketa-neurriak beharko litzuketen zarata-tarteak gorritz nabarmendu dira. Etxe barruko benetako eragina, gutxienez kanpoan dagoen zarata-maila baino 33 dB(A) txikiagoa dela kontsideratzen da.

Adierazleak hobetzeko ekintzak eta jarduerak

Gasteizko klima-aldaketaren kontrako estrategia 2016ko CONAMAREN inaugurazioan

Ingurumenaren Biltzar Nazionalaren (CONAMA) 13. edizioan presente egon zen Gasteizko Udala 2016an. Inaugurazio-jardunaldian parte hartu zuen, eta protagonista izan zen hiriek klima-aldaketaren kontrako borrokaren helburu globalekin duten konpromisoari buruzko mahai-inguruan. Gasteizek urteak daramatza emisioak gutxitzea xede duen tokiko plana garatzen —2020rako emisioen % 25 baino gehiago murrizteko, 2006an erregistratuen aldean—, baita klima-aldaketara egokitzeko plana taxutzen ere, prozesu horren ondorioek ahalik eta kalte gutxien egin diezaioten udalerritari.


Gasteizko Hiriko Klimaren Mapa lantzea, klima-aldaketaren kontrako estrategia lokalaren barruan

Gasteizko Udalak eta Ihobe ingurumen-kudeaketako sozietate publikoak hitzarmen bat sinatu dute 2016an, Mapclimurb proiektua garatzeko, eta Gasteizko hiriko klimaren mapa landu da horren bitartez. Berringurumena programaren barruko hitzarmen horren bidez, garapen iraunkorra, klima-aldaketaren kontrako borroka eta biodibertsitatea bultzatzeko estrategiekin lotutako proiektu berritzaileak sustatu nahi izan dira Udalsarea 21 osatzen duten udalerrietan.

Maila lokalean klima-aldaketaren kontra borrokatzeko tresna garrantzitsua da Hiriko Klimaren Mapa. Hiri-plangintza hobetzea lortu nahi izan da hori landuz, hiri-ingurunean erosotasun termikoa eta airearen kalitatea baldintzatzen dituzten aldagai klimatikoak aztertuz. Klimari dagokionez hiriak dituen ezaugarrien analisi egin da —hala nola hiri-morfologia, hiri-garapenen ezaugarriak, landaretzaren presentzia, ur-laminak eta abar—, eta orobat aztertu da hiriko zona bakoitzak bertan pilatzen den beroa haizatzeko duen ahalmena, horretan lagunduko duten aireztapen-korridoreak definitzeaz batera.

Hiriko bero-irlaren ezaugarriak hobeto ezagutzeko aukera emango du azterlan horrek, eta hiriko zonak bero-irla horrek erosotasun termikoan duen eraginaren araberako sailkatzeko. Klimaren inguruko gomendio orokor batzuk ematen ditu gainera, hirirako; hiri-ingurunearen aireztapena hobetzeko eskualdeko nahiz bertako haizeak baliatzean eta nekazaritza-eremuetatik aire hotzaren sarrera ahalbidetzean fokalizatzen dira horiek nagusiki, eta hiri-espazioen eta bereziki landaretzaren diseinua hiri-ingurunean pilatzen den beroari aurre egiteko elementu gisa baliatzean.

ZIRKULAZIOA ETA GARRAIOA



JASANGARRITASUNEKO HELBURU OROKORRA:

- MOTORDUN GARRAIOAREN ERABILERA MURRIZTEA
- GARRAIOBIDE PUBLIKOEN ERABILERA GEHITZEA



5. Tokiko mugikortasuna eta bidaiarien garraioa

Mugikortasun hazkorrak hirietako ingurumenaren kalitatea, gizarte-ongizatea eta bideragarritasun ekonomiko mehatxatzen ditu. Horretan eragina dute trafikoaren gehikuntza handiak eta erabiltzen diren garraiatzeko moduen aldaketa erradikalak, izan ere, oinez, bizikletaz edo garraio bide publikoek egiten ziren joan-etorrien ordez gero eta gehiago erabiltzen dira auto partikularrak.

Udaletik joera hori aldatzeko behar diren jarduketak burutu behar dira. Irisgarritasun, garapen ekonomiko eta ingurumeneko helburuen bateragarritasuna izan behar du hiri-garraioko politikaren helburu nagusia.

Hurrengo datuek, 2001ean, 2006an eta 2011n egindako inkestetatik atera direnak, egun Gasteizen dagoen mugikortasun eskemaren nolabaiteko ideia ematen dute.

Datu iturria: hiritarren arteko inkesta

Joera desiragarria: gehitzea garraio bide motorgabeetan, gutxitzea garraio bide motordunetan

Neurtze aldia: lau urtean behin

5a. Biztanle bakoitzak egunero egiten dituen bidaia kopuruen batez bestekoa

	Oinez	Bizikletaz	Motoz	Auto pribatuz	Taxiz	G. kolek.	Beste batz.	Guztira
2001	2,43	0,05	0,02	0,72	0,01	0,26	-	3,50
2006	1,26	0,08	0,02	0,92	0,01	0,26	0,00	2,55
2011	1,86	0,23	0,02	0,96	0,00	0,36	0,01	3,45
2014	2,04	0,46	0,04	0,89	0,00	0,31	0,01	3,75

2014	Oinez	Bizikletaz	Motoz	Auto pribatuz	Taxiz	G. kolek.	Beste batz.	Guztira
Beste batzuk	0,88	0,13	0,01	0,33	0,00	0,12	0,00	1,48
Eskola	0,10	0,09	0,00	0,02	0,00	0,05	0,00	0,28
Lana	0,18	0,12	0,01	0,32	0,00	0,07	0,00	0,71
Aisia	0,39	0,09	0,01	0,11	0,00	0,03	0,00	0,63
Erosketak	0,48	0,03	0,00	0,11	0,00	0,04	0,00	0,66
Guztira	2,04	0,46	0,04	0,89	0,00	0,31	0,01	3,75

5b. Biztanle bakoitzak egunean egiten duen bide-luzeraren batez bestekoa (kilometro biztanleko)^{1, 2}

	Oinez	Bizikletaz	Motoz	Auto pribatuz	Taxiz	G. kolek.	Beste batz.	Batez bes.
2001	2,72	5,65	4,29	9,52	-	-	-	4,35
2006	Ez zen neurtu							
2011	Ez zen neurtu							

5c. Biztanle bakoitzak egunean egiten dituen bidaien batez besteko iraupena (minutu biztanleko)¹

	Oinez	Bizikletaz	Motoz	Auto pribatuz	Taxiz	G. kolek.	Beste batz.	Batez bes.
2001	20,71	24,74	27,57	19,25	22,50	21,32	-	20,54
2006	21,54	31,31	21,51	23,68	43,33	16,10	-	23,30
2011	24,41	19,17	15,27	18,89	21,95	25,85	28,47	22,62
2014	20,26	18,73	14,97	19,96	15,06	29,12	27,06	20,70

2011	Oinez	Bizikletaz	Motoz	Auto pribatuz	Taxiz	G. kolek.	Beste batz.	Batez bes.
Beste batzuk	25,02	23,40	13,76	19,25	13,59	30,06	29,11	23,93
Eskola	19,02	14,88	16,15	22,68	10,00	30,63	-	20,10
Lana	15,87	16,13	14,89	21,05	17,50	28,34	20,88	19,54
Aisia	18,47	20,14	17,46	22,03	17,80	30,78	50,81	19,97
Erosketak	14,92	17,24	8,63	16,30	-	23,93	11,24	15,71
Guztira	20,26	18,73	14,97	19,96	15,06	29,12	27,06	20,70

5d. Bidaia sistematikoak eta ez-sistematikoak ehunekotan


%	2001	2006	2011	2014
Bidaia sistematikoak ³	18,28	36,24	36,49	26,22
Bidaia ez sistematikoak	81,72	63,76	63,51	73,78
Guztira	100,00	100,00	100,00	100,00

1- Batez bestekoak balio haztatuak dira, bidaiaren arrazoiari emandako pisuaren arabera kalkulatuak.

2- 2006an eta 2011n egindako inkestek ez zuen kontuan hartu azpiadierazle bat eta, beraz, ez dago horri buruzko daturik.

3- Desplazamendu sistematikoak: lana, lan kudeaketak, ikasketak

5e. Garraibide diferenteen erabilera ehunetotan




	Oinez	Bizikletaz	Motoz	Auto pribatuz	Taxiz	G. kolek.	Beste batz.
2002	55,00	dat. gabe	dat. gabe	31,00	dat. gabe	8,00	6,00
2006	49,62	3,27	0,86	36,04	0,25	9,79	0,17
2011	53,57	6,88	0,55	28,42	0,10	10,04	0,35
2014	54,36	12,27	0,94	23,83	0,10	8,32	0,17

6. Tranbia eta hiri autobusa erabiltzen duen bidaiari kopurua

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Hiri-Garraioak, S.A. (TUVISA)

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: urtero



7. Trafiko intentsitatea

Adierazle honek motordun ibilgailuen zirkulazio intentsitatea neurtzen du, adierazgarriak diren oinarrizko bidesareko 23 puntutan urte osoan zehar egindako intentsitate neurketen batez bestekoa erabiliz.

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Mugikortasun eta Garraio Zerbitzua (aforoen sare automatikoa)

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurtze aldia: urtero

Kale	2013	2104	2015	2016
Juan Garai (Arriagako atea-Forondako atea)	17.434	16.844	17.184	16.999
Gasteiz hiribidea (T. Zumarraga dohatsua-Adriano VI)	Dat. gabe	8.722	8.591	8.502
Errege-erregina katolikoak (Martin Salinas pz.-Santa Isabel)	17.882	17.766	18.692	17.89
Txile (Argentina-Fdz. de Leceta)	6.897	Dat. gabe	Dat. gabe	7.198
Domingo Beltran (Badaia-Gurutze Zuria)	11.688	9.362	9.849	12.125
Herrandarrak (Estenaga apezpikua-Kalonjeen zidorra)	15.273	12.928	8.247	12.587
San Ignacio Loiolakoa (Arriagako atea-Legutianoko atea)	9.901	8.650	Dat. gabe	Dat. gabe
Francia (Arana-Esperanza)	Dat. gabe	Dat. gabe	Dat. gabe	11.024
Olagibel (Bakea-Herrandarrak)	12.148	11.283	11.091	4.482
Olagibel (Lizarrako Markesa-Foru)	6.928	Dat. gabe	2.863	3.243
Bakea (Done Jakue Ibilbidea-Olagibel)	12.551	11.646	11.722	11.493
Madril (Valladolid-Deba artoa)	9.533	9.758	10.090	10.329
Madril (Deba artoa-Valladolid)	8.431	8.151	8.280	8.383

- Neurketa puntu batzuk aldatu egin dira eta beste batzuetarako ez da informazio-rik jaso obrak egon direlako eta tranbia funtzionamenduan sartu delako.

8. Garraio-azpiegiturera bideratutako azalera

Adierazle honek garraioari eskainitako udal-azalera adierazten du, garraio-motak desberdinduz.

Datu iturria: Lur erabileren mapa (Vitoria-Gasteizko Ingurumen Informazioko Sistema-SIAM).

Joera desiragarria: gutxitzea ibilgailu pribatuaren erabilerara bideratutako azalera; gehitzea garraio publiko kolektiboari, oinezkoen erabilerari eta bidegorriei bideratutakoa

Neurtze aldia: bi urtean behin

	2013		2015		2017	
	m ²	%	m ²	%	m ²	%
Garraio publiko kolektiboaren						
erabilerarako azalera	513.316	3,29	568.670	3.5%	570.565	3,5%
Bidegorrien azalera	425.905	2,73	504.774	3.1%	527.773	3,2%
Oinezkoen erabil. azalera	4.153.201	26,65	4.456.221	27.6%	4.511.799	27,7%
Ibilgailu pribatuaren						
erabilerarako azalera	10.491.064	67,32	10.619.695	65.8%	10.669.349	65,5%
Garraio-azpiegiturera						
bideratutako azalera	15.583.485	100,00	16.149.360	100.0%	16.279.487	100,0%

Adierazleak hobetzeko ekintzak eta jarduerak

TUVISAK 10 autobus erosi ditu

TUVISAK 10 autobus artikulatu berri erosi ditu, Mercedes Citaro Euro6 modeloak eta 128 bidaiari (48 jarrita) hartzeko lekua dutela. Inbertsioa 3.550.000 eurokoa izan da. Ibilgailu berriek aurkezten dituzten berrikuntzen artean azpimarratzekoa da iraunkortasunaren eta ekologiaren alde egindako apustua, berreskurapen-modulua sartuta, sistema horrekin karbono dioxidoak atmosferarako emisioak murriztuta. Kutsadura akustikoa ere arindu egingo da, eta halako aurrerapen ildoari jarraituz, irisgarritasuna ere hobea da, ibilgailuen barnealdean erreserbatutako lekuen kopurua handitu egin delako.

Miñao Teknologia Parkerako garraioa hobetzeko hitzarmena

2016ko irailean, Arabako Foru Aldundiaren, Gasteizko Udalaren eta Arabako Teknologia Parkearen arteko lankidetzeta-hitzarmena onartu zen, industrialde horretarako garraio publikoa hobetzeko. Horren bitartez, Udalak konpromisoa hartu du Miñao Teknologi Parkerako garraio erregularraren finantzaketan ekonomikoki parte hartzeko, Teknologia Parkeari zerbitzua hobetzeko ibilbideak eta egutegiak diseinatzen laguntzeko, eta garraioa normaltasunez garatzeko beharrezko diren administrazio baimenak errazteko. Hitzarmen horretan aurreikusten den Parkerako autobus lineak bi ibilbide ditu Gasteiztik irteteko (ekialdea eta mendebaldea), eta guztira 15 geldialdi izango ditu hirian zehar, eta beste 8 geldialdi izango ditu teknologia parkean. Maiztasunari dagokionez, zerbitzuaren diseinuak 14 zerbitzu eratu ditu guztira, 07:10etik 19:00etara.

Ikasleei zirkulazio seguruari buruzko prestakuntza ematea

Bai Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak baita Udaltzaingoa ere programa bat dute urtero ikasleei zirkulazio seguruari buruzko prestakuntza emateko.

IGIk bizikletaz seguru eta modu arduratsuan zirkulatzeari buruzko lantegiak eskaintzen dizkie Gasteizko 1.200 ikasleei. Seguru zirkulatzeo ikastaroetako parte hartzaileek trafikoaren gorabeherak balioesten eta ohiko joan-etorriak bizikletaz egiteko ibilbideak diseinatzen ikasten dute. Orobat bizikletak konpontzeko eta segurtasun gailuak erabiltzeko lantegia eskainiko da, neska-mutilak argiak eraman beharraz, bizikleta egoera onean izateaz eta lapurreten kontrako gailuak erabiltzeaz sentsibilizatu daitezten.

Udaltzaingoko Bide Heziketarako Parkeak bide hezkuntzari buruzko bi programa eskaintzen ditu: bat adinekoentzako, eskaeraren arabera eskainitako elkarrizketen bitartez, adinekoak inplikatura dauden harrapatzeen tasa murriztea eta adinekoek bide arriskuei aurre egin behar izatearen kontzientzia zabaltzea helburu dituela; eta gazteei zuzendutako beste programa bat, Udaltzaingoaaren pistan egiten diren jarduera praktikoetan oinarri hartuta, horren bidez zalantzak, ezagutzaren hutsuneak, trebetasunak eta jarrerak antzeman daitezke.

21 Eskola Agenda

Gasteizko 21 Eskola Agendan parte hartzen duten ikastetxeek 2014-2016 eskolaldian zehar haurrek eskoletara egiten dituzten joan-etorrietan mugikortasun aktibo eta autonomoa sustatzeko lan egin zuten; eta helburutzat hartu zuten espazio publikoan, eta hiriaren eta haurren arteko harremani buruzko pertzepzio kolektiboan esku hartzea, eta haurrei hurbileneko ingurunea deskubritzen eta autonomia mugatzen dieten oztopoak gainditzen lagunduko dien hezkuntzan ere esku hartzea.

Koroatzearen proiektuaren espazio publikoan egingo diren esku-har- tzeen partaidetza-prozesua

SmartEnCity proiektuak Koroatze auzoa birgaitzea du helburu eta bi milioi euro erabiliko ditu proiektuak ezarritako jarduera-eremuaren barruko (Koroatze kaleak, Domingo Beltranek, Badaiak eta Arriagako ateak mugatzen dutena) espazio publikoa birgaitzeko, eta Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planaren planteamenduen esparruan.


2016an zehar partaidetza-prozesu bati eman zitzaion hasiera, auzoko bizilagunek espazio publiko hori nolakoa behar duen izan erabakitzeko. Beraz, Koroatzeko bizilagunen esku dago aparkatzeko lerroak bertan jarraituko duten edo, bestela, espaloiak zabaldu edo plaza batzuk (esaterako, Aldabe plaza edo Ziudadela plaza) osorik eraldatuko diren eta zein ezaugarri izango duten... erabakitzea.

Autobus geltokian bizikletentzako aparkalekuak egiteko proiektua

2016an abiatu zen Autobus geltokian bizikletentzako aparkaleku kolektibo eta segurua egiteko proiektua. Leku itxia da, segurua, bideoz zaindua eta zaintzailerik gabea, eta horrek kostu operatiboak murriztea ahalbidetzen du. Berez bizikletak gordetzeko lekua da, sarrera geltoki barrutik zein kanpotik duena. Obrak 44.000 euroko aurrekontua du, eta 2017ko erdialdean abian jarriko da.

Oinezkoen eta bizikletarien ezbehar-kopurua

2016an eguneratu zen Gasteizko bizikletarien ezbehar-kopuruari buruzko azterketa 2013-2015 urtealdiari dagozkion datuak gehituta eta atal berria gehitu zen, bereziki oinezkoen ezbeharrak aztertzeko. 2013, 2014 eta 2015ean gertatutako bizikletarien istripuen eta oinezkoen harrapatzeen datu guztiak bildu ziren, Udaltzaingoaren atestatuetakoa eta udaltzainen txostenetan erregistratutako datuetatik abiatuta. Behin txostenetako datuak aterata, azterketaren helburuak lortzeko aldagai bereizgarrienak jaso ziren: denboraren alderdiak, istripua jaso zuteneko profila, ondorioak, kokapen geografikoa, arrazoiak, etab.





URA

JASANGARRITASUNEKO HELBURU OROKORRA:

- UR HORNIDURA ETA URAREN KALITATE ONA BERMATZEA
- UR KONTSUMOA ARRAZOIZKO EGITEA
- URAREN KALITATE INTEGRALA BABESTEIA

ura



URAREN KALITATEA

Ur-baliabideen kalitateak bere erabilera posibleak zehazten ditu. Bai ur edangarriak, bai jolas-jardueretara, ureztatzera eta industria- eta nekazaritza-erabileretara bideratzen den urak kalitate ona izan behar dute; era berean, ur-ekosistemak mantentzeko behar den urak ere kalitaterik onena izan behar du.

Uretara joaten diren hainbat sustantziaren eraginez kutsadura sor daiteke, batez ere gizakien ekintzen ondorioz, hiri- eta industria-isurkinen bitartez, nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueren ondorioz, etab. Horregatik, beharrezkoa da ur zikinak tratatzea ur-ibilguetara itzuli aurretik.

9. Hiriak Zadorra ibaiari ematen dion karga organikoa


Oxigeno-Eskari Kimikoa (OEK) uretan dauden osagai guztiak oxidatzeko behar den oxigenoaren neurria da. Eskari horretatik abiatuz, Oxigeno-Eskari Biokimikoaren (OEB) kalkuluak egin daitezke. Oxigeno-Eskari Biokimikoa uretan materia organikoa narriatzeko prozesu biologikoan kontsumitzen den oxigeno-kopuruaren neurria da; zenbat eta handiago izan OEB, are handiagoa izango da materia organikoaren kopurua, eta ondorioz, baita kutsadura-maila ere.

Zadorra ibaiko urak Krispiñanako Ur Zikinen Araztegiko efluentea jaso ondoren egiten duen OEK gehikuntza aztertzen du adierazleak. Ur Zikinen Araztegiaren aurretik (1. puntua) eta ondoren (2. puntua) egindako neurketen aldetik ateratzen da adierazlea.

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saila

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurtze aldia: urtero




10. Ur zikinen arazketa

Funtsezkoa da ur zikinak saneatu eta arazteko sistemak egokiak izatea, erabilera zein kopuru aldetik, ibilgu publikora egiten diren isurketen eragina minimizatze-ko. Adierazle honek ur zikinak tratatzeko sistema egokiak dituzten Gasteizko etxebizitzaren ehunekoa aztertzen du.

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Espazio Publikoa eta Natur Ingurunea Zerbitzua

Joera desiragarria: arazte sistemarik gabeko etxebizitzaren gutxitzea

Neurtze aldia: urtero



UR-KONTSUMOA


Ura funtsezko elementua da bizitzarako eta, gainera, beharrezkoa da ekonomia-jarduera gehienetarako. Gure planetan nahiko ugaria den baliabide berriztagarria den arren, hornidurak beherakada handia ari dira jasaten gaur egungo kontsumo eta kutsadura handiengatik.

11. Uraren etxeetako kontsumoa

Datu iturria: Gasteizko Udal Urak, S.A. (AMVISA)

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurtze aldia: urtero




12. Ur-eskari osoa

Datu iturria: Gasteizko Udal Urak, S.A. (AMVISA)

Joera desiragarria: gutxitzea


Neurte aldia: urtero



13. Ur-eskari osoaren sektore-banaketa

Datu iturria: Gasteizko Udal Urak, S.A. (AMVISA)

Neurte aldia: urtero



• Udal-kontsumoa (udal-instalazio eta zerbitzuak) • Zerbitzueta eta industriako kontsumoa • Elxeetako kontsumoa


14. Ur edangarriaren banaketa-sarearen errendimendua

Sarearen errendimendua ur edangarriaren banaketak duen efizientzia-maila adierazten du. Errendimendu hori lotuta dago sareko ihesekin, iruzurrezko ur-hartzeekin, erregistratu gabeko hartze baimenduekin edo kontagailuetako azpi-kontaktarekin.

Datu iturria: Gasteizko Udal Urak, S.A. (AMVISA)

Joera desiragarria: gehitzea

Neurte aldia: urtero



Adierazleak hobetzeko ekintzak eta jarduerak

Jarioak aurkitzeko sistemaren hobekuntza.

2016an, zuntz-zementuzko hornikuntza-sarearen erabateko kontrola egiten jarraitu zen, 760 permalog baliatuz, eta sarearen eraginkortasun-mailari eutsi ahal izan zitzaion hartara. Isuriaren bolumen absolutuak oso beherako mailan jarraitzen du.

Zuntz-zementuzko hornikuntza-sarea berritzea

Zuntz-zementuzko sarea berritzen jarraitu zen, eta 7.900 metro hodi ordeztu. Beberbiziko garrantzia izan du San Martin auzoko hoditeriak berritzeak.

Arakako biltegiak sendotu eta berritzeko lanak

Hasita daude biltegi zaharra eraisteko eta 30.000 m³ hartzen duen Biltegi 2 biltegi berria eraikitzeko obrak.

FUTURA plana

2016an, aurrera jarraitu zuten Futura planeko jarduerak, uraren zentzuzko erabilerara sustatzea eta hirugarren fasean ziklo integralaren eraginkortasuna hobetzea helburu. Planaren emaitzak agerikoak dira, kontsumo-mailak baxua izaten jarraitu baitu, hornidura orokorraren beheranzko errekor berria ezarrita.

Uraren kalitate-kontrolaren hobekuntza

Sareen eta hartuneen kontrola areagotzen jarraitu zen, eta tratamendu-gune berrietan uraren klorazioa areagotzeko asmoa dago.

IRRIGESTLIFE proiektua amaitu da, udalak parke eta lorategiak kudeatzeko smart ureztatzeko sistema garatuta.

IRRIGESTLIFE proiektua (LIFE11 ENV/ES/615) 2012ko irailean abiarazi zen, ureztatzeko sistema adimentsu bat (GestDropper izenekoa) garatzeko asmoz proba-eremutat Gasteiz erabiliz. GestDropper sistemak hirian barrena jarritako sentore eta meteorologia-estazio batzuen datuak baliatzen ditu ureztapen bolumena automatikoki optimizatzeko. Hiru osagai nagusi ditu: meteorologia-estazioak (tenperatura, haizearen abiadura eta prezipitazioa neurtzeko sentoreak dituztenak), elektrobulbulak (emaria eta kontsumo elektrikoa neurtzeko sentoreak barne), eta programagailuak, zeinak mini-ordenagailuak baitira funtsean, aipatutako osagaiak jasotako informazioa integratu eta ureztapena automatikoki zuzentzen dutenak. Udalaren Geografia Informaziorako Sistemarekin komunikatzen da sistema, eta handik prozesua monitorizatu eta eskuz kontrolatu daiteke. Hartara, GestDropperrek aukera ematen du ureztapena tokiko meteorologia baldintzetara egokitzeko —esaterako, euriteei edo haize bolada gogorrei, lehen kasuan ez baita ureztatu behar, eta bigarrenean, ez baita eraginkorra—, eta sistemak isuririk edo akatsik badu unean bertan erantzuteko.

Aurreko urteen aldean aurrezpen nabaria izan da ureztatzeko ur kopuruan, % 32koa. Aurrezpena kalkulatzeko aurretik zegoen kudeaketa era kontuan hartu da, eta han uraren bolumena ez zegoen eremu bakoitzeko ur-beharretara hobetuta, eta sistema ez zen gai tokiko meteorologia baldintzetara egokitzeko (programazioa eta ureztatzeko bolumena betik berak izaten ziren, baldintza haiekin inolako loturarik izan gabe).

Proiektua 2015eko abenduan amaitu bazen ere, LIFE programarekin hartutako konpromisoak betetzearren 2016-2020 epean egingo liratekeen jarduketak definitu egin dira, proiektuaren emaitzen komunikazioan laguntzeko. 18.056 euroko inbertsioa sartu da aurrekontuan, proiektuaren bazkideekin partekatzeko, eta horrek barne hartzen du web gunea zaintzea, berriak eta artikuluak argitaratzea eta azoka eta biltzarretara joatea, besteak beste.

Saneamendua.

2016an zehar saneamenduko 2.729 metro lineal berriitu dira. Aurtengo saneamenduko obra guztiak sare bateratuetan egin izan dira.

Saneamenduko hoditerian 1.331 metro lineal berriitu dira, mahuka autosostengarrrien bidez, kalean zangarik ireki beharrik gabe. Zaramaga auzotik datozen ur zikinak eta euri ur guztiei aterabidea ematen zien hodi oboidea aldatu eta 1.200 mm diametroko hodi biltzailea jarri da, urak husteko ahalmena handitzeko eta horrela Zaramagako auzoko uholde arazoak saihestu egiten dira, aurreko hodi oboideak ez zuen edukierarik. 1.200 mm-ko hodi biltzailetik 1.034 metro jarri dira Arriagako Kofradiaren eta Gasteizko Taldearen kaleetan.

Hasi dira Gamarra Nagusiko obrak, bertako administrazio batzarra jasaten ari den uholdeen arazoa arintzeko.


Honako administrazio-batzar hauei dagokienez, hondakinak uzteko baimenak berriitu egin dira: Arkauti, Otogoi, Otobarren, Lubiano, Lasarte, Mendiguren eta Uribarri Dibiña.

ENERGIA



JASANGARRITASUNENKO HELBURU OROKORRA:

- ENERGIA KONTSUMOA MURRIZTEA
- ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ERABILERA SUSTATZEA



15. Argindar eta gas naturalaren kontsumoa etxean

Energia funtsezko elementua da ongizatea lortzeko eta gizarte osoaren garapen ekonomikorako, baina ingurumen-inpaktuen iturri garrantzitsua ere bada. Energia-sistemako fase bakoitzak (produkzioa, transmisioa, banaketa eta kontsumoa) ingurumen-inpaktuak sortzen ditu, neurri handiago edo txikiagoan, erabiltzen den energia eta teknologiaren arabera.


Energia-kontsumo osoa zenbatzeko zailtasunaren aurrean, adierazlea etxeko sektoreari bakarrik dagokio¹.

Datu iturria: IBERDROLA eta NATURGAS

Joera desiragarria: gutxitzea


Neurtze aldia: urtero

GAS NATURALA. Etxeko eta merkataritza sektoreak




¹ Etxeko zein merkataritza sektoreen gas naturalaren kontsumoa, sektoreen arabera bereizita, lortzea ez da posible, hori dela eta, datua bi sektoreen gehiketa dagokio

ELEKTRIZITATEA. Etxeko sektorea



ELEKTRIZITATEA. Merkataritza sektorea



16. Efizientzia energetikoko ziurtagiria lortu duten etxebizitzetako kopurua


Etxebizitzetako efizientzia energetikoko ziurtagiriak ziurtatzen du etxeek energia-aren aprobetxamendu maximoa lortzera zuzendutako zenbait eraikitze neurri eta irizpide betetzen dituztela. Ziurtagiriak eraikinen efizientzia termikoa neurtzen du bi ikuspuntutik: berotze-sistema eta ur beroaren ekoizpena. Horretarako, eraikinen isolamendu-maila eta energia ekoizteko instalazioak bezalako alderdiak ikuskatzen dira, besteak beste.

Adierazleak adirazten du zenbat etxebizitzak duten ziurtagiria udalerriko etxebizitzetako kopuru osoarekiko.

Datu iturria: CADEM

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: urtero



Adierazleak hobetzeko ekintzak eta jarduerak

ENERGIA-ERAGINKORTASUNAREKIN LOTUTAKO EKINTZAK ETA ENER-GIA BERRIZTAGARRIEN EZARPENA UDAL INSTALAZIO ETA ZERBITZUE-TAN

Argiteria publikoaren alorreko jarduerak

Santa Luzia eta Judimendi auzoetan argiteria publikoa hobetzea.

LED teknologia duten luminariak instalatu dira Santa Luzia auzoko hainbat kale-tan, orain artekoak baino eraginkorragoak izaki. Energia-kontsumoa murrizteko aukera ematen du horrek, eta argiteria publikoaren energia-eraginkortasunaren araudiarekin bat datozen argiztapen- eta uniformetasun-mailak lortzekoa. Gai-nera, orain arte zeuden argiek eragiten zuten itsutzea eta argi-kutsadura ekiditen dira. Guztira, 331 luminaria aldatu dira, eta horrek ekarri du 218.000 kWh-ko urteko aurrezpena.

Hiriko beste kale batzuetako argiteria publikoa hobetzea.

Jardun izan da gainera hiriko hainbat kaletan (Jose Erbina kalea, Herrandarren kalea, Palentzia, Aragoi, etab.), eta beste zenbait eremutan ere, Armentiaoko basilikaren inguruan edo Mendiolan esate baterako, han luminaria zaharrak kendu eta berriak jarri dira, LED teknologiazkoak, urtean 325.000 kWh inguruko aurrezpena eginda.

Bola itxurako luminarietan potentzia hobetzea, eraginkortasun eskasa eta argi-kutsadura handiegia dutelako.

Luminaria esferikoek eraginkortasun eskasa eta argi-kutsadura handia sortzen dutelako Lakua-Arriagan aldean guztira 582 farola aldatu dira, eta hala haien potentzia 150 W-tik 100 W-ra murriztu da. Hiriko hainbat kaletan ere (Pio XII.arena, Badaia, Bruno Villarreal, etab.) jardun izan da luminaria esferiko bikoitzeko 284 farolen gainean, horietako bat kendu eta bestea erdian jarrita, 150 W-ko lanpara batekin. Kontsumoa murriztu egin da urtean 340.000 kWh gutxiagoko kopuruan.

Luminaria-kopurua optimizatzea argiztatuegi zeuden Salburua eta Zabalganeko sektore berrietan

Azken urteetan hirigintzan egindako garapenak hiriaren inguruetan kokatzen dira eta bertako argiteria publikoaren instalazioak gairak gaineratuta daude farolen kopuruari dagokionez, eta instalatuta duten potentzia guztia hiriko gainerakoekin alderatuta handiagoa da, beraz, energia kontsumo eta gastu ekonomiko handiagoak dituzte. Indarrean dagoen araudiari egokitzearren, hainbat ekintza eraman izan da aurrera: luminariak kentzea ezpaloi berean bi farola lerro zeuden kaletan eta gehiegi argiztatuta zeuden bidegorrietan, luminaria batzuk itzaltzea urbanizatu ez diren sektoreetan eta gaur jende gutxi ibiltzen diren pasealekuetan, etab. Guztira 476 faroletan jardun izan da, eta 225.148 kWh aurreztu dira.

Hirian oinezkoen igarobide batzuk hobeto argiztatzea

Obra zibila gauzatu da eta hiriko zenbait lekutako oinezkoen pasabideak argiztatzeko beharrezko diren LED luminariak eta zutabeak ezarri dira. Obra horiek lehenasunezkoztat jo zituen Trafiko Zerbitzuak. 62 farolen gainean jardun izan da, eta 30.000 kWh urteko aurreztu. Gainera, horien segurtasuna ere hobetu egin da.

Esku-hartzeak udal eraikinetan

Udal Eraikinetako energia-ziurtapena eta energia aurreztu eta eraginkortasunez erabiltzeko neurriak:


2016ko abenduan hasi ziren energia-ziurtapena, eta energia eraginkortasunez eta energia berriztagarriak erabiltzeko 5 proiektu lantzen 5 udal eraikin hauetan: Hegoalde GE, Mendizorroztzeko Frontoiak, Udaltzaingoa, Suhiltzaileen Parkea, Oreitia-soloko pabilioiak.

Gamarrako igerilekuetan gasoliozko galdara zaharkituak kendu eta gas naturaleko 100 kW-ko 4 galdara jarri dira, eta 300 kW-ko biomasa galdara bat (pelletak).


HEZKUNTZA-, SENTSIBILIZAZIO- ETA ZABALKUNDE-EKINTZAK

Ikasleekin egiteko hezkuntza eta sentsibilizazio jarduerak

Olarizuko etxaldeko instalazioak oinarritzat hartuta, energiaren erabilerari eta energia berriztatzaileei buruzko hezkuntza jarduera bat egin da. Jarduerak azalpen saio bat eta beste saio praktikoa bat barne hartzen ditu. Alderdi praktikoa energia audiotoretza egitea du oinarri, eta horretarako sistema batzuk erabiltzeko ditu energiaren beharrak eta kontsumoak kalkulatzeko (argindarra, elektrizitatea, berokuntza), eta bisitatu egiten dira eraikineko energia berriztagarrien instalazioak. Jarduera DBHko 1. zikloko ikasleen 25 talderi zuzendu zaio.



INDUSTRIA



JASANGARRITASUNEKO HELBURU OROKORRA:

- INDUSTRIA PROZESUEK SORTUTAKO INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINA MURRIZTEA
- PRODUKZIO GARBIA SUSTATZEA



17. Ingurumenaren kudeaketarako ziurtagiria duten enpresak


Ingurumenaren aldeko konpromisoa hartu behar dute enpresa handi, ETE, erakunde publiko eta GKE-ek eguneroko kudeaketan. Ziurtatutako ingurumen-kudeaketako sistema izateak, enpresak edo erakundeak indarrean dagoen ingurumen-araudia behar bezala betetzen duela eta prozesuak eta jarduerak etengabe kontrolatzen dituela esan nahi du, horrela, ingurumen-portaera gero eta jasangarriagoa izango da.

ISO 14001 nazioarteko arauarekin edo Europako EMAS sistemarekin bat datorren ingurumen-kudeaketako sistema ziurtatua dute Gasteizko udalerrian kokatutako enpresa handi eta txiki askok. Bada, horiei buruzko adierazlea da hau.

Datu iturria: IHOBE

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: urtero



Adierazleak hobetzeko ekintzak eta jarduerak

Ekintzaileentzako eta enpresak sortzeko laguntzak

Udalak informazioa, orientabideak, aholkularitza espezializatua eta prestakuntza eskaintzen ditu enpresa-proiektua definitzeko prozesuan, ezagutza teknikoak eskaintzeko eta behar diren trebetasunak pertsonalak lantzeko, proiektuek arrakastan lortzeko dituzten aukerak handitzearren. Besteak beste, ekiterakoan ingurumena kontuan hartzeko jarraibideak ematen dira.

2016an, 350 ekintzailerik eman zaie arreta, 715 ordu eskaini dira prestakuntza eta mentoring saioetan, eta beste 277 ordu aholkularitza espezializatuan, taldeko 50 prestakuntza-saio antolatu dira, eta ekintzaileentzako 55 beka banatu. Aholkularitza zerbitzura datozen pertsonen egiten zaien jarraipenaren bitartez, 2016an guztien 58 negozio ideia enpresa bihurtu direla jakin izan dugu, gehienak zerbitzuen sektorekoak. Ereduzko profila 35-44 urteko emakumea da, erdi edo goi mailako unibertsitate ikasketak dituena, eta sektorean aurretik esperientzia duena. Zerbitzu ezberdinen erabiltzaileen asebetetasun maila 8,7 izan da.

Bestetik, enpresa-emakumeen eta emakume ekintzaileen arteko aldiro to-paketetan, zeinetan aldi berean emakume eta enpresaburu izateagatik dituzten zailtasunak partekatzen baitituzte, 86 emakumek hartu dute parte 2016an. Sortzen diren sare profesionalak parte hartzaileen artean merkataritza akordioak ixtea ahalbidetu dute, eta enpresen lehiakortasuna hobetzen lagundu. Gainera, Enpresen Zerbitzuak Berdintasun Zerbitzuarekin batera lan egin du Jabekuntzarako Eskolan hitzaldi bat eskaintzeko: "Estiloak aldatzen. Emakumeen lidergo berriak lan-eremuan".

2016an, Araba Ekinean programaren XIII. edizioa egin da, "Zaila dena erraza egiten" lemarekin. Horren barruan hainbat jarduera eta eduki proposatzen dira ideien bat duten gazteei hori gauzatzea dagoela erakusteko. Jardunaldi nagusiaren inguruan, eskola lantegiak, unibertsitate bakarriketak, ideia-azoka, eskola enpresen feria, elkarriketak eta hitzaldiak antolatu dira, bai eta ekiteko ideietarako "Zure ideiak balio du" lehiaketaren XII. edizioa ere.

Azkenik, prestakuntza zentroekin batera lan egiten jarraitu da, "Kultura ekintzaile-erabiltzaile hurbilduz" programaren bidez. Saio praktikoak dira, parte hartzaileek ekitearekin lotutako funtsezko kontzeptuak ezagutzeko aukera izan dezaten, autoestimua, erantzukizuna, pertseberantzia eta antzeko ahalmenak sendotzen laguntzen duten dinamika motibatzaileak baliatuz. Orotara 33 lantegi izan dira, eta 696 ikasle hartu dute parte, lanbide familia ezberdinetako Erdi zein Goi mailako Prestakuntza Zikloetako lehen eta bigarren graduetakoei.

Laguntzak enpresa berrikuntza eta lehiakortasunari

2016an 465 enpresarekin egin dira kontaktuak, hainbat kanpainaren bidez. Horietako % 70 baino gehiago mikroenpresak dira, askotariko jarduera-sektoretakoak; "enpresentzako zerbitzuak" eta "industria" alorretakoak dira ugariak. Diagnostiko eta aholkularitza zerbitzuak eskaini dira arlo hauetan:

– Kudeaketari buruzko aholkularitza. 15 enpresak jaso dute zerbitzu hori; diagnostiko eta aholkularitza pertsonalizatuari esker, enpresek kudeaketa eraginkorragoa garatzen dute, eta ingurunera egokitzeko gaitasuna areagotzen, zenbait arlotan hobetuz. Gehien eskatutako aholkularitza arloak ekonomiko-finantzarioa eta merkataritza-marketina izan dira.

- Energia-eraginkortasuna: 2016an "Karbono maila txikiko ekonomia kostuak aurrezteko" programa eskaintzen jarraitu da. Enpresaren kostu ekonomikoak gutxitzeaz gain, karbono emisioak —zuzenak eta zeharkakoak— minimizatu nahi dira horren bidez, teleneurketa eta kontsumoak monitorizatzeko sistema bat baliatuz eta energia aurrezteko neurriak ezarriz. Helburu hori bat dator hiriak iraunkortasunaren alde hartutako konpromisoarekin. 2016ko martxoan amaitu zen 2015eko deialdia, zeinean 10 enpresak hartu baitute parte, hainbat jarduera-arlotakoak: industria merkaturatze eta automatizazioa, automobilen konponketa, industria hornikuntza, hortz-klinika, galdaragintza, industria garabiak, produktu kimikoen fabrikazioa, zerbitzu-gunea,... Askotarikotasun horrek erakusten du zerbitzuaren erabilgarritasuna eta edozein motatako enpresetan eta ekonomia-jardueretan ezar daitekeela. Parte hartu zuten enpresek bataz beste 8,5 puntu eman zioten zerbitzuari. Zerbitzua baliatu zuten enpresek batez beste % 17,71 aurreztu zuten hileko fakturan, eta ia bi tona CO2 murriztu.
- Ekonomia zirkularra: laster enpresek industria-hondakinen kudeaketa eraginkorrari aurre egin beharko diote, dagoeneko egin diren eta egitear diren lege aldaketen ondorioz. Bestetik, arauak arau, hondakin horiek berrerabilteza eta berriro produkzio-zikloan sartuz ekonomikoki aprobetxatzea ekonomia eraginkortasuna lortzeko aukera ere bada, dakarren ingurumen hobekuntzaz gain. 2016an amaitu zen "Ekonomia zirkularra Gasteizko metalaren sektorean" proiektu pilotua, 2015ean abian jarritakoa. Horren bidez, neurriko aholkularitza eman zaie 6 enpresari, ezaugarritzea, murrizteko ahalmenaren azterlana eta hondakinak baliatzeko ahalmenaren analisisa eginez.
- Enpresa profesionalizazioa: 8 lantegi eskaini zaizkie jarduera sendotzeko, hedatu eta merkatu berriak bilatzeko edo lehiakortasuna hobetzeko beharra duten 105 enpresari. Parte hartzen duten enpresek aukerak antzematen dituzte, hobekuntza-plana garatzen eta kudeaketa-tresna egokiak erabiltzen, aholkularitza espezializatu baten laguntzarekin. Batez besteko balioespena 7,95 izan da. Orobat, 9 enpresa jardunaldi antolatuta dira, enpresa aktualitateari edo enpresentzat zein profesionalentzat estrategikoak diren alderdiei buruzkoak, eta horietan 151 enpresak hartu dute parte.
- Nazioartekotzea: Arabako Merkataritza Ganberarekiko hitzarmen baten bidez, nazioarteko feria eta topaketetara joateko izen-ematearen eta bidaiaren kostuak ordaindu zaizkie bertako 30 enpresari. Horretaz gain, enpresek aholkularitza teknikoak, agenden kudeaketa, akonpainamendua eta Ganberaren itzulpena izan dute.
- Laborategi Hiria: 2016an, Laborategi Hirian parte hartzeko bi eskabide jaso dira; programa horrek hiriak ingurumen- eta gizarte-iraunkortasunaren alde egin duen apustuarekin bat datozen proiektuak probatzeko aukera ematen du.
- Industria Zerbitzua: 2015ean berariazko arloa sortu zen Udalean industria-enprekin lan egiteko, Gasteizko industrialdeetan kokatuta dauden enpresei ematen zaizkien udal oinarrizko zerbitzuak optimizatzearen, eta horretarako beste udal zerbitzu batzuekin koordinatzen da oinarrizko hirigintza-zerbitzuak ematea: bide eta espaloien mantentzea, argiteria publikoa, garbiketa, lorezaintza, uren kudeaketa, saneamendua, hondakinen kudeaketa, etab. Gainera, zenbait jarduera jarri dira abian sormen-industria lagundu eta sustatzeko: diseinuaren sektoreko eragile garrantzitsuenak identifikatu eta haiekin batera lan egitea, Film Office sustatzea, eta sormen-industria bultzatzea.

Ekintzaile eta enpresentzako laguntzak

Gasteizko udalerrian enpresa berriak sortu, berritu eta horien lehiakortasuna hobetzeko 4 laguntza-ildo kudeatu dira: enpresa txikiak sortu, berritu eta lehiakortasuna sustatzeko laguntzak; ekintzaileentzako beka; "Ekin txekoa", eta Lanbideren laguntzak ekintzaileentzat. Orotara 123 laguntza eman dira, 300.000 euro baino zer-txobait gehiago.

Itun Berdea

2016an Itun Berdearen alde egiten jarraitu da, ingurumen- eta ekonomia-aldagaiak enpresen errentagarritasuna hobetzeko bitarteko gisa integratzearen abantailak zabalduz eta horren inguruan sentsibilizatuz. Beste 60 enpresa atxiki zaizkio Itun Berdeari, eta 137k berritu dute atxikipena; hartara, guztira 197 ziren atxikitako enpresak, ekitaldiaren bukaeran. Itun Berdea Sarien II. ediziora 25 jardunbide egoki aurkeztu dira, eta orobat egin da V. Topaketa, zeinetan 92 enpresen eman baitzuten izena.

Itun Berdeko Enpresen V. Topaketa

Itun Berdeko Enpresen Topaketa egin da bosgarren urtez jarraian. Aurtengo edizioaren hitz gakoa "esperientzia" izan da. Gainera, aurreko edizioan bezala, Itun Berdea sariak banatu ziren, ingurumenaren arloko jardunbiderik onenak dituzten enpresen ahalegina eta konpromisoa aitortzeko. Ingurumena enpresa-arrakastaren faktore bihurtzeko hiru alderdi gako aztertzeke espazioa da: ingurumen-kudeaketa, komunikazioa eta marketina.

Hasteko, esperientziei eta adituei eskainitako atala izan zen, bi gai ezberdinei buruzko bi bloketan banatuta. "Ingurumenarekiko konpromisoa balioztatzeak duen garrantzia" ponentziak eman zion hasiera lehen blokeari: 6 enpresak kalitate estandarrek ezartzearekin eta ziurtagiriak eta ziguiluak lortzearekin lotutako jardunbide egokiak aurkeztu zituzten. Bigarren blokean "Zure marka konpromiso bat da guztia- ren gainetik" ponentzia aurkeztu zen, eta ondoren beste 6 enpresak ingurumen-jardunbide egokiak nola komunikatu azaldu zuten, eta esperientzia zehatzak kontatu zituzten. "Todo lo que Ud. siempre quiso saber sobre cambio climático, pero nunca se atrevió a preguntar" hitzaldiak eman zion amaiera jardunaldia.

Udalaren enpresa zentroak

Aretoak eta azpiegiturak uzteaz gain, udalaren enpresa zentroek enpresen lehiakortasuna sustatzera bideratutako baliabideak eta zerbitzuak eskaintzen dituzte. 2016an jarduera hauek nabarmendu daitezke:

- Jundizko enpresa-zentroan handitu egin da erabilgarri dauden aretoen kopurua, bulego handi bat bi txikitan banatu baita.
- Iraunkortasunarekiko konpromisoari eutsi zaio, bi zentroetan Ekoscan ziurtagiria berritu baita.
- Talentuaren eta kualifikazioaren aldeko apustua egin da, gure ingurunean talentua sorrarazten duten jarduera eta mugimenduei lagunduz, "Gasteiz Talent" programaren bidez.
- Coworking edo lankidetzarako espazio pribatuen sare lokalari laguntzen eta hura ikustarazten jarraitu da, eta protagonismo handiagoa eman zaie Cocolab16 jardunaldian.

– Sendotu egin da Twitter sare sozialean zerbitzuak, jarduerak eta harremanak ezagutarazteko lana, @vg_emprender helbidearen bitartez.


2016ko amaieran, Jundizko enpresa-zentroan 28 enpresa zeuden, eta horiek orotara 102 pertsona enplegatu dituzte, autonomoak eta soldatapekoak batuta. Berriki etorritako enpresei dagokienez nabarmendu behar da % 50ek ingurumenarekin lotutako jarduerak dituztela: bioeraikuntza, LCD pantailak berreskuratzea, ogi ekologikoko lantegia, produktu ekologikoen online denda,... Erdi Aroko hiriguneko zentroan 18 enpresa zeuden 2016ko amaieran, eta 50 langile.

Basaldea proiektua, nekazaritza ekologikoaren sektorean enpresak sortzeko

Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak, ENEEK-Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak, HAZI fundazioak (Itsasmen-dikoiren bitartez) eta Azoka Plazak nekazaritza ekologikoa sustatzeko sortu zuten Basaldea proiektuan egokitze-lanak egin dira, negutegiak instalatu dira, etab.; Euskadiko ekoizle ekologikoen erroldako izen-ematea ere mantendu da. Pres-takuntza-ikastaroak eskaintzen jarraitu da, eta Gobernu Batzarrak baratzezaintza ekologikoko enpresen mintegiko lursailak esleitzeko deialdia onetsi zuen abenduan; lursailen bat eskuratu nahi zuten pertsoneri zuzendutako informazio-jardunaldia ere egin zen. Nekazaritza ekologikoaren produktuak merkaturatzeko kanalari dagokionez, oraindik proiektuaren esku daude produktu ekologikoak saldu eta maneiatzeko 2 toki. Basaldea proiektuari buruzko komunikazioari eta zabaldundeari dagokienez, zenbait jardunalditan parte hartu da, eta web-orria berri-ritu. Mintegiko iparraldeko lursailean Kooperera enpresaren alde egindako administrazio emakidaren bidez garatzen ari den gizarteratze-proiektuak hasitako lanari eutsi dio.

Merkataritza txiki lokala dinamizatzea


2016an, 24 saltoki bisitatu dira, bereziko Erdi Aroko hirigunean, Zabalgunean eta Zaramagan, informazio esanguratsua eta eguneratua zuzenean lortzearren, hori erabilgarria izango baita Gasteizko merkataritza eta ostalaritzako enpresen lehiakortasuna hobetzeko xedez garatzen diren ekintza-planak, zerbitzuak eta tresnak ezartzeari begira.



HONDAKINAK

JASANGARRITASUNEKO HELBURU OROKORRA:

- HONDAKIN PRODUKZIOA MURRIZTEA
- HONDAKINEI AHALIK ETA BALIO HANDIENA EMATEA
- HONDAKINEN TRATAMENDUAK ETA KUDEAKETAK OSASUNARI ETA INGU-RUMENARI ARRISKURIK EKARTZEA SAIHESTEA



18. Etxe eta saltokietako zaborrak biztanle eta eguneko

Kontsumoa eta per capita errenta handitzeak zerikusia du hondakin asko sortzarekin. Zaborrak sortze horrek kostu handiak eragiten ditu ekonomia- eta ingurumen-arloetan: baliabide material eta energetikoen kontsumoa, lurzorua okupatzea, etab.

2008. urtetik aurrera, adierazlea kalkulatzeko beste metodologia bat erabiltzen da. Metodologia honek hiri hondakinen pisua neurtzen du, bai etxeko hondakinekin zein erakundeen, denden eta bi horien parekoak diren jardueretatik datozenak, betiere udal zerbitzuek jaso badute (ez dira barnean sartzen hirian bitarteko pribatuaren bidez jasotzen diren hiri hondakin asimilagarriak).

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saila

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurtze aldia: urtero

2013	1,00 kg/bizt/egun
2014	0,99 kg/bizt/egun
2015	0,98 kg/bizt/egun
2016	0,98 kg/bizt/egun

19. Hiriko hondakin solidoen birziklapena

Hondakinak sortzeak ingurumenean izango duen eragina, hondakin horiei ematen zaien tratamenduaren arabera izango da. Horregatik, birziklapena eragin hori txikitzeko modua da. Hori horrela, tokian tokiko lehentasunezko helburuak dira hondakin gutxiago sortzea eta sortutako hondakinekiko baliagarri bihurtutako hondakinen portzentajea handitzea.

2008. urtetik aurrera, adierazlea kalkulatzeko beste metodologia bat erabiltzen da. Kalkulu hau egiteko erabili diren hondakin zatikiak hurrengoak dira: bolumen handiko hondakinen bilketa espezifikoak, edukiontzien bidez eta atez atez egiten diren bilketa selektiboak papera-kartoiari, beirari, ontzi arinei eta arropen dagokiekin, pilen bilketa eta puntu berdeetan bildutako hondakinak, bai puntu berde mugikorrean bai garbiguneetan.

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saila
Joera desiragarria: gehitzea
Neurtze aldia: urtero

2013	23,50%
2014	24,60%
2015	26,50%
2016	26,70%

Adierazleak hobetzeko ekintzak eta jarduerak

Edukiontzia jarri eta kentzeko sistema, hirigune historikoko gaikako hondakin-bilketan

Aldatu egin da hiriko hirigune historikoan hondakinak gaika biltzeko sistema. Ekainera arte edukiontzien bitartez biltzen zen beira, eta papera eta kartoia nahiz ontziak biltzeko berariazko buzoiak zeuden hondakinak jasotzeko sistema pneumatikoa. Sistema ez zen emaitza onak ematen ari, eta hiriaren erdialdeko eta zabalguneko birziklatze-eredua bertara hedatzea erabaki zen. Hartara, birziklatzeko edukiontzia jartzen dira hamabi lekutan arratsaldeko lehenengo orduetan, eta goizaldean kentzen, husteko. Sistema-aldaketarekin nabarmen egin du gora bildutako paper- eta kartoi-kopuruak, baita ontzi-kopuruak ere, eta hobetu egin da horien kalitatea.

Ikastetxeetan ontziak atez ate biltzeko sistema

Hiriko ikastetxeetan ontziak atez ate biltzeko kontratu bat jarri da abian, ontziak erosoago jasotzeko, papera eta kartoiarekin lehendik egiten zen bezala. Horrela, ikastetxeen esparruetatik atera beharrik gabe birzikla ditzakete haurrek ontziak, eta, halaber, prestakuntza-ekintzak egiteko aukera ematen die horrek ikastetxeei.

Hondakinak biltzeko buzioen ahoak aldatzea

Hondakin-bilketa pneumatikoa hobetzeko asmoarekin, bilketa-buzoien aho berriak probatu dira hirigune historikoan, eta arrakastatsua suertatu da ekimena. Aho horiek, zabalagoak izanik, hondakinak errazago sartzeko aukera ematen dute, eta, horrela, nabarmen hobetu da inguru horretako gaikako bilketa.

“Bene-benetan Berdea” kontzientziazio-kanpaina

Birziklatzearen inguruan sentsibilizatzeko “Bene-benetan Berdea” kanpaina egin da 2016an. Horrela, Gasteiz hiri benetan berdea bihurtzeko bakoitzak bere gain hartu beharreko konpromiso partikularra azpimarratu da horren bitartez. Gizalagearen kontrako ekintzen kostua —milioi bat euro— gogorazai zaie herritarrei, eta denok gizalagez jokatzu gero diru horrekin hirian zer egin ahalko litzatekeen pentsatzeko gonbita egin.

Eskualdeko Enplegu Plana

Eskualdeko Enplegu Planaren bitartez, ingurumen-sentsibilizazioan espezializatu-tako sei teknikari kontratatu dira, zeinek, sei hilabetez, kontzientziazio-kanpainak egin baitituzte hondakinen kudeaketa egokiaren inguruan, herritarrei, merkatariari nahiz ostalariei zuzenduta.

21 Eskola Agenda

Hondakinen kudeaketa izan zen 21 Eskola Agendak aukeratutako gaia, 2016an. Urte osoan, haurrei kontzientzia harrarazteko hainbat ekintza egin dira ikastetxeetan, hala nola ikasle eta irakasleen arteko solasaldiak, eskoletan ontziak biltzeko esperientziak, edo ikastetxeetako edukiontzi-sareak hobetzeko ekintzak.

Hondakinen Prebentzioaren Europako Astea


Azaroaren 19tik 27ra bitartean Hondakinen Prebentzioaren Europako Astea izan zen, zeinen xedea baita sortzen ditugun hondakinak murrizteko premiaz ohartaraztea. Ahalik eta herritar gehienengana iristeko asmoz, beira-hondakinen gaikako bereizketa sustatzeko komunikazio-kanpaina bat abian jarri zuen Udalak. ECOVIDRIOK gauzatu zuen kanpaina, kalez kale informazioa ematen ibili ziren bost begiralarekin. Orobat egin ziren hondakinak gutxitu eta birziklatzeko lantegi praktikoak gizarte-etxeetan, gazteei eta haurrei zuzenduta, Egibideko monitoreen eskutik.

HIRIGINTZA ETA LURRALDEA



JASANGARRITASUNEN HELBURU OROKORRA:

- HIRIKO SISTEMEK SORTZEN DUTEN INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINA TXIKITZEA
- HIRIKO BIZI KALITATEA HOBETZEA



20. Oinarrizko zerbitzuetara eta gune publiko irekietara iristea

Biztanleek erabilera publikoko guneetarako eta oinarrizko zerbitzuetara erraz iristea izatea funtsezkoa da hiritarren gutxieneko bizi-kalitatea bermatzeko. Gainera, oinarrizko zerbitzuak etxetik hurbil izateak desplazamendu gutxiago egin behar izatea esan nahi du. Osasunaren eta elikagaien arloetan zerbitzurik ez izateak nolabaiteko bazterketa sortzen du behar sozialei aurre egiteko orduan.

Oinarrizko zerbitzuetatik eta irekitako gune publikoetatik, hurrenez hurren, 300 eta 500 metro baino gutxiagora bizi diren biztanleen ehunekoaren bitartez adierazten da irisgarritasuna.

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumen-Informazioko Sistema (SIAM). *Udaleko beste hainbat Sail*
Joera desiragarria: gehitzea
Neurtze aldia: urtero

	< 300 m				< 500 m			
	2014	2015	2016	2017	2014	2015	2016	2017
Gune publiko irekiak (%)	100	100	100	100	100	100	100	100
Hezkuntza-zerbitzuak (%)	83,59	82,29	85,94	85,47	94,12	93,82	95,38	94,98
Kirol-zerbitzuak (%)	82,27	82,15	83,56	82,53	93,84	94,47	95,13	94,73
Osasun-zerbitzuak (%)	48,31	48,90	49,02	48,35	81,51	81,04	80,88	79,99
Dendak (%)	96,34	96,06	95,64	95,09	97,91	97,80	97,65	98,03
Kultur zerbitzuak (%)	68,48	76,01	76,78	78,02	85,09	91,79	91,35	91,65
Garraio kolektiboa (%)	97,99	98,12	98,22	98,20	99,56	99,58	99,60	99,60
Birziklatzea ¹ (%)	97,54	99,12	98,91	98,40	99,56	99,84	99,85	98,03
Farmaziak (%)	86,24	85,71	83,75	83,72	94,41	94,04	92,64	92,69
Finantza-entitateak (%)	85,93	83,83	83,01	76,18	92,91	92,25	91,88	87,05

21. Lurraren erabilera jasangarria

Jasangarritasunaz ari bagara, lurra ahalik eta gehien babestu beharreko funtsezko baliabidea da. Lur baliotsuenak eta emankorrenak babestu egin behar dira, euren kalitatea murriztuko duten aprobetxamendu eta erabilerak saihestuz. Eraikinen kasuan, erabilera horiek lurraren galera ia itzulezina ekar dezakete.

Lurralde- eta hirigintza-kudeaketa egokiek lurren kontserbazioa eta biziberritzea zaindu behar dituzte, lurraldeari bere hartzeko ahalmenaren arabera erabilerak esleitzuz, gune baliotsuenak babestuz, ingurumen-balio txikieneko lurretan modu kontzentratuan eraikiz, hiriko hutsuneak berraprobetxatuz eta lur kutsatuak berreskuratu eta biziberritzeko politika egokia aplikatuz.


1- Birziklapen zerbitzuak ondokoak dira: bilketa selektiboko edukiontzia, garbiguneak, puntu berdeak eta bilketa pneumatikoko buzoiak.

Adierazle honek lurraren erabileran jasangarritasun-mailari buruzko ikuspegi integratua eskaintzen duten hainbat aspektu jasotzen ditu.

21a. Lur artifizializatua eta urbanizagarria

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Hirigintza eta Plangintza Saila eta Ingurumen Informazioko Sistema (SIAM)

Neurtze aldia: bi urtean behin





21b. Lur abandonatuak eta potentzialki kutsatuak

Datu iturria: IHOBE eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumen Informazioko Sistema (SIAM)

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurtze aldia: bi urtean behin



2014 1.157 ha


2015 957 ha

21c. Lurraren erabilera-intentsitatea

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Hirigintza Saila eta Ingurumen Informazioko Sistema (SIAM)

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: bi urtean behin




● Biztanle dentsitatea exkebizitzen lurrean ● Biztanle dentsitatea lur artifiziailizatuan

21d. Garapen berrien kokapena

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Hirigintza Saila eta Ingurumen Informazioko Sistema (SIAM)

Joera desiragarria: eraikitze berrien gehitzea lur artifiziailizatu eta abandonatuatan

Neurtze aldia: bi urtean behin



● Garapen berriak lur artifiziailizatuan ● Garapen berriak lur birjinean ● Garapen berriak lur abandonatuatan

Garapen berriak	2009	2011	2013	2015
... lur birjinean	3.505.392 m ²	471.500 m ²	283.500 m ²	248.546 m ²
... lur artifiziailizatuan	710.866 m ²	1.715.900 m ²	1.069.300 m ²	391.459 m ²
... lur abandonatuatan	47.901 m ²	27.900 m ²	25.100 m ²	13.954 m ²


21e. Hiri-azaleren zaharberritzea

• Obra handiko lizentzia duten eraikin zaharberrituen kopurua

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Hirigintza Saileko Eraikuntzen Zerbitzua

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: urtero



• Berreskuratutako lur abandonatu eta kutsatuen azalera

Datu iturria: IHOBE eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumen Informazioko Sistema (SIAM)

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: Urtean behin

	2009	2011	2013	2015
Lur abandonatu berreskuratutak	61.790 m ²	25.055 m ²	131.636 m ²	13.954 m ²
Lur kutsatu berreskuratutak	156.346 m ²	184.997 m ²	Sin datos	Sin datos


21f. Landa-espazioa eta espazio naturala

• Babestutako azalera udalerriko azalera osoarekiko

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumen Informazioko Sistema (SIAM)

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: Urtean behin




• Ingurumen leheneratzeko edo hobekuntza ekologikoko ekintzak jasan dituzten lurak

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Espazio Publikoa eta Natur Ingurunea Zerbitzua eta Ingurugiro Galetarako Ikastegia

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: urtero



Adierazleak hobetzeko ekintzak eta jarduerak

Hiriko azpiegitura berdea

Udalak Hiri Azpiegitura Berdearen Estrategia lantzen jarraitu du, natura hirian barneratzeko, eta horrek eskaintzen dizkigun ingurumen, ekologia eta gizarte onurez baliatzeko. Lakuabizkarrean azpiegitura berderako lanak egiteko laugarren fasea burutu da; aurreko urtean jarri zen abian proiektua, inguru hartan hogeita lau lursail biziberritzeko. 2016an funtsean lan hauek egin ziren: lurra mugitzeko eta lorzaintzako lanak, orubeak egokitu, heskai bertikalak jarri, fruitu-arbolen ortuak sortu, erdibitzaillean landareak aldatu eta beste azpiegitura berde batzuk osatu.

Ingurumena leheneratzeko eta hobekuntza ekologikorako lanak Eratzun Berdean

2012an, Europako Hiriburu Berdearen izendapenaren kariatara, Gasteizko Udalak "Etokizunaren sustraiak" proiektua abiarazi zuen, zeinen bidez 250.000 zuhaitz eta zuhaixka landatu nahi baitira Eratzun Berdean, herritarren eta enpresa babesleen laguntzarekin. 2016an jarduera hauek egin dira:

- Landaketak Abetxuku inguruan: 265 zuhaitz eta zuhaixka landatu ziren Abetxuku iparraldeko lur eremuetan. Guztira 1.060 m² lehengoratu ziren.
- Landaketak Olarizu parkean: 1.796 zuhaitz eta zuhaixka landatu ziren Europako basoen arboretoan, landare lehorrak ordezteko, eta Jauregilanda kalearekiko muga heskai bat osatzeko.
- Landaketak Errekaleor ibaiaren inguruan: 600 zuhaitz eta zuhaixka landatu ziren Viena kaletik gertu heskai bat osatzeko.
- Landaketak Basaldea nekazaritza-parkean: 1.125 zuhaitz eta zuhaixka autoktono landatu ziren lursailen perimetroan eta biltegien inguruan heskaiak osatzeko. Guztira 2.250 m² lehengoratu ziren.
- Taxu handiko zuhaitzak landatzea Eratzun Berdean: 135 zuhaitz landatu ziren Eratzun Berde osoan barrena.
- Landaketak sendotzea Lermanan: 306 zuhaitz eta zuhaixka landatu ziren lehendik landatutako garai bateko soro batean, A-1 errepidearen ondoan.

Ingurumena leheneratzeko eta hobekuntza ekologikorako lanak nekazaritza eremuan

Jarduera hauek egin ziren 2016an udalerriko nekazaritza-eremuan ingurumena lehengoratu eta hobekuntza ekologikoa lortzeko:

- Bakantze-lanak: baso-suteek Uribarri Nagusiko Saimendi mendian erretako gu-neak lehengoratzea. Bakantze-lanak egin ziren eremu horietan birsorkuntza naturala bultzatzeko, 2009an baso-sutea izan baitzen.
- Baso-landaketak:
 - . Zadorra ibaiaren ertza lehengoratzea Margaritan.
 - . Ingurune hondatuak egokitu eta oneratzeko eta landatzea Jundiz muinoan.
 - . Baso-landaketa Lasarteko garai bateko lugorri batean, Gardelegiko zaborte-giaren ondoan.
 - . Lehortutako aleak ordeztea Estarroan, Parezikua inguruan.

- Txabola bat kentzea eta lurra egokitzea San Lorenzo ibaiaren ertzean (Askartza).
- Garai bateko bi lasto-biltegi garbitu eta egokitzea Villafranca eta Aberasturin.

Eremu hondatuak berreskuratzeko proiektu pilotua

Jundizko industrialdeko mendebaldean, Iparraldeko Autobiarekiko paralelo, lur zerrenda bat dago, utzia eta hondatua, berdegune gisa planifikatuta egon arren. Gasteizko Udala lurzoru hondatuak lehengoratzeko proiektu pilotu batzuk egiten ari da, egoera konpontzearen. 2016an Mendigurentxo izeneko inguruan —hektarea bat— esku hartu zen, zeina aipatutakoaren ondoan baitago iparraldetik; gaikako biketako “konposta” gehitzea eta nekazaritza eta baso laboreen txandakatzea batera erabili ziren. Nekazaritza eta baso laboreak energia lortzeko erabil litezke, lurra hondatuta baitzegoen proiektuari ekitean. Informazio gehiago:


http://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?aplicacion=wb021&ta bla=contenido&idioma=es&uid=u_684bbe23_14ddbbae27c8__7f4d

Interreg Sudoe proiektua Gasteizko lurzoru kutsatu eta hondatuak berreskuratzeko

Gasteizko Udala, IGIren bitartez, PhytoSUDOE proiektua (“Lurzoru kutsatu eta hondatuetan biodibertsitate edafikoa, funtzionaltasuna eta zerbitzu ekosistemikoak fitogestioaren bidez nola hobetu daitezkeen erakustea Interreg sudoe eskualdean”) garatzeko partzuergoa osatzen duten 10 entitateetako bat da, zeinak laguntza jaso baitu Interreg Sudoe 2016-2018 europar deialdiaren barruan. Proiektuari esleitutako europar funtsak 947.910,39 euro dira guztira, hau da, kostu osoaren % 75 gutxi gorabehera. Gasteizek horren zati bat (104.461,13 €) jasoko du lan hauek egiteko: Jundizko industrialdean udal jabetzako lursail hondatuak prestatu, landaketak kudeatu eta laginak hartzea, eta proiektua komunikatzeko lantaldearen gidaritzaz arduratzea. Ikerketa Zientifikoaren Kontseilu Goreneko Ikerketa Agrobiologikoen Institutua (IIAG-CSIC) da partzuergoaren buru, eta beste 9 ikerkuntza zentrok eta Frantzia, Espainia eta Portugalgo 7 bazkidek parte hartzen dute.

PhytoSUDOEren helburu nagusia espazio hondatuak kudeatzea eta lehengoratzea da, fitoerremediazio teknika berritzaileak (“fitogestioa”) baliatuz, horiek biodibertsitatea sustatzen, ekosistemen funtzionaltasun integrala hobetzen eta baliabideen erabilera jasangarria ahalbidetzen baitute.





NATURA ETA BIODIBERTSITATEA

JASANGARRITASUNEN HELBURU OROKORRA:

- GIZA JARDUEREK SISTEMA NATURALEN GAINEAN DUTEN ERAGINA MURRIZTEA
- NATURA BALIABIDEEN KUDEAKETA IRAUNGARRIA SUSTATZEA
- INGURUNE HONDATUEN ONERATZEA SUSTATZEA



22. Biodibertsitatearen kontserbazio egoera Vitoria-Gasteizko udalerrian (hegazti ugartasunaren indizea)

Ikuspuntu ekologikotik, lurralde baten kontserbazio egoera biodibertsitate mailaren arabera neurtu daiteke, bertan dauden animalia- eta landare espezieen kopurua eta ugartasuna kontuan hartuz. Batzuetan, espezie guztiak zenbatzeko zailtasunak talde ordezkari bat biodibertsitate multzoaren eredu gisa aukeratzea eskatzen du.

Adierazle berri hau ekosistema bakoitzeko hegazti biodibertsitatean oinarrituta dago.

Hegazti ugartasunaren indizea

Datu iturria: CEA

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: urtero

Udal adierazlea Europako azken erreferentziako azken aldaketek egokitu zaizkio, eta horrek funtsean bi azterketa talde berri sortzea esan nahi du: zuhaixka inguruetako hegaztiak eta hezeguneetako hegazti txikiak.

Azpialdeak	Erref. balioa										
		2005	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Nekazaritzakoak	100	63	86	87	104	95	75	75	79	92	
Zuhaixkakoak	100	128	167	80	69	92	77	57	69	47	
Basokoak	100	80	122	98	93	62	100	62	85	85	
Hezeguneetako paseriformeak	100	183	122	153	192	87	133	100	125	119	
Hirikoak	100	116	182	152	125	139	129	159	64	183	

Azpialdeak	Aldaketa %	Estatistika-joera
2005-2016		
Nekazaritzakoak	-8	Egonkorra
Zuhaixkakoak	-53	Neurrizko beherakada
Basokoak	-15	Egonkorra
Hezeguneetako paseriformeak	19	Ezezaguna
Hirikoak	83	Ezezaguna

23. Nekazaritza ekologikoko teknikak jarraitzen dituzten lursailak

Nekazaritza ekologikoa laborantza produktuak eskuratzeko modu jasagarria da, hau da, ingurumenaren babes eskakizunekin bateragarria dena. Izan ere, birziklapena eta baliabide berriztagarrien erabilera sustatzen ditu, Naturak berak izarriak eta gaixotasunak kontrolatzeko dituen bideak errespetatzen ditu, pestizida, herbizida eta ongari kimikoak erabiltzea saihesten du, etab. Azken finean, ingurumena begirunez jokatzen duten nekazaritza praktketan oinarritutako ekoizpen sistema bat osatzen du.

Nekazaritza ekologikoaren erabilera nahiko berria eta oso urria da gure lurraldean; aitzitik, ingurumena hobetzeko konpromiso sendoa erakusten du nekazarien aldetik, eta horregatik Administrazioen laguntza merezi du.

Datu iturria: ENEEK- Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: urtero

2012	2013	2014	2015	2016
334.400 m ²	630.000 m ²	925.000 m ²	957.000 m ²	958.000 m ²

24. Ibaien egoera ekologikoa (BMWP' indizea)

Ibaietan bizi diren espezie akuatikoen baloraziotik abiatuz, BMWP' adierazle biotikoak ibai-ekosistemen kalitatea neurtzeko aukera ematen du. Espezie bakoitzak kutsadura jasateko duen ahalmenaren arabera, BMWP' adierazleak balio jakin bat ematen dio. Horrela, gehien jasaten dutenek puntu gutxiago dituzte. Lortutako puntuazio-mailaren arabera, kalitate jakin bat esleitzen zaio aztertutako ur-ekosistemaren atalari.

Udalerriko ibai sarearen kalitatea hiru puntutan neurtu da: Zadorra ibaian Arroiabe parean (Uribarri-Ganboako urtegiaren irteeran), Zadorra ibaian Tresponden (Gas-teizko udalerrriaren irteeran) eta Alegría ibaian Ilarratza parean (hiriaren sarreran).

Datu iturria: Agencia Vasca del Agua-Uraren Euskal Agentzia

Joera desiragarria: hobetzea

Neurtze aldia: urtero

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
ZAD-522 (Trasponte)	III	IV	III	II	III	IV	IV
ZAL-150 (Dulantzi)	III	II	III	III	II	II	II
ZAD-460 (Zuhatzu)	II	III	III	II	III	II	II
ZAD-338 (Mendibil)	II	II	III	II	II	II	II

Ia=Oso ur garbiak; Ib=Kutsatu gabeko urak; II=Kutsadurak zerbait eragindako urak; III=Kutsatutako urak; IV=Kutsadura handiko urak; V=Izugarri kutsatutako urak

Adierazleak hobetzeko ekintza eta jarduerak

Gasteizko udalerriko Biodibertsitatea Kontserbatzeko Estrategiari lotutako jardueren garapena, eta lehenengo ekintzak martxan jartzea.

Biodibertsitatea Babesteko Tokiko Estrategia idatzi eta ezartzeko konpromisoa sartu zuen Gasteizko Udalak 2010-2014 urteetarako 21 Agendaren Tokiko Ekintzarako Planaren edukien artean. 2015eko otsailean, Gobernu Batzarrak onetsi zuen dokumentua.

Onetsi ondoren, bertan planteatzen ziren ekintzetako batzuk gauzatu dira:

- Eusko Jaurlaritzarekin eta AFArekin batera, udalerrian ditugun Natura 2000 Sa-reko espazioetako biren babes eta kudeaketa egokirako dokumentuak lantzen parte hartu da: harizti-irlak eta Gasteizko Goi Mendiak. Behin betiko onespena eman zaie dokumentu horiei 2016an.
- Gasteizko Goi Mendietako kontserbazio-eremu bereziko mehatxatutako espezieak kontserbatzeko proiektua bukatu da. Hainbat jarduketa egin dira 2015 eta 2016an, hariztien, mehatxatutako floraren, saguzarren, basoetako anfibioen eta muxar grisaren kontserbazio-egoera hobetzeko, eta okil ertainaren populazioak zehaztasunez ezagutzeko. Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa izan du proiektuak.
- "Zadorra ibaiko kontserbazio-eremu bereziko dibertsitatea areagotzeko jarduketak, Gasteizko udalerrian" proiektua abian jarri da, Eusko Jaurlaritzarekin batera finantzaturik, eta 2016 eta 2017 urteetan garatuko da. Lehen urte honetan, saguzarren eta apoarmatu autoktonoen populazioak areagotzeko jarduketak egin dira, baita mehatxatuta dagoen floraren populazioak hobetzeko ere.
- Zaintza-mekanismo bat ezarri du Eraztun Berdeko zaintza-zerbitzuak, hegazti-botulismoaren episodioak bizkorki antzemateko udal hezeguneetan. Ahalegin horren ondorioz, 2016an 59 hegaztiri baino ez die eragin gaitz horrek, 2014ko 791ren aldean.

Biodibertsitatearen azterketa eta jarraipena


Zenbait talde eta espezieren bilakaerari buruzko azterketak egin dira 2016an:

- Gasteizko udalerriko mehatxatutako flora espezieen eta kontserbatzeko interesa dutenen jarraipena.
- Gasteizko orkidea-populazioen jarraipena.
- Gasteizko odonatu-populazioen jarraipena.
- Gasteizko eguneko tximeleten jarraipena.
- Gasteizko hiri-hegaztien jarraipena.
- Biodibertsitatearen kontserbazio-egoeraren adierazlea, Gasteizko hegazti ugaltzaileen jarraipenean oinarritua. 2016. urtea.
- Salburuko hezeguneetako hegaztien hilean hileko erroldak.
- Ur-hegazti negutarren nazioarteko erroldan parte hartzea.
- Ur-hegazti habiagileen erkidegoko erroldan parte hartzea.
- Salburuko eta Zadorra ibaiko apoarmatu autoktonoen populazioaren ezaugarriak finkatu eta apoarmatu exotikoenak kontrolatzea. 2016. urtea.

- Gasteizko udalerrian dagoen baso-igel jauzkarien populazioaren jarraipena.
- Gasteizko Mendietako gailurretako uhandrearen populazioen inbentarioa eta diagnostikoa.
- Gasteizko Mendien inguruko okil ertainaren populazioaren kontserbazio-egoera eguneratzea, Gasteizko udalerrian.
- Apoarmatu autoktonoen populazioak ezaugarritzea, eta apoarmatu exotikoenak kontrolatzea, Zadorra ibaiko Natura 2000 Sarearen espazioaren barruan, Gasteizko udalerrian.
- Gasteizko Goi Mendiak kontserbazio-eremu bereziko basoetako kiropteroen azterketa.
- Zadorra ibaiko kontserbazio-eremu bereziko eta inguruetako saguzarrentzako babes-kutxen okupazio-mailaren azterketa, Gasteizko udalerrian.

LIFE LUTREOLA SPAIN proiektuan parte hartzea

LIFE laguntza bat eman zuen Europako Batzordeak, 2014ko ekainetik 2018ra bitartean bisoi europarraren kontserbazio-egoera hobetzeko hainbat ekintza bideratzeko, munduan mehatxatuen dagoen haragijale txikia izaki. Gasteizko Udala proiektu horretako bazkidea da, beste administrazio batzuekin batera —hiru aldundiak eta beste—. 2016an, bisoi amerikarra kontrolatzeko ekintzak egin dira, eta sentsibilizazioaren eta ingurumen-hezkuntzaren arloko hainbat ekintza abian jarri dira. 2016an jarritako tranpek aukera eman dute jakiteko bisoi europarraren ale gutxi batzuk badirela bertan, eta gero eta gutxiago direla, aldiz, espezie inbaditzailekoak, bisoi amerikarrak. Pozgarriak dira emaitza horiek, hurrengo urteetan espezie autoktonoaren sendotze demografikoari ekiteko aukera izan litekeela erakusten baitute.




INGURUMEN OSASUNA ETA ARRISKUAK



JASANGARRITASUNEN HELBURU OROKORRA

- EDOZEIN JARDUERAK OSASUNARI ETA INGURUMENARI DAKARZKIETEN ARRISKUAK GUTXITzea



TABAKISMOA

Tabakoak osasunean duen eragina da hiriko biztanleek jasan beharreko ingurumen-arrisku garrantzitsuenetako bat. Dударik gabe, ohitura sozial hedatuenetarikoa bat da eta modu zuzenean eragiten dio erretzen ez duen biztanleriaren zati handi bati.

25. Erretzaileen ehunekoa (ohikoak edo noizbehinkakoak)

Datu iturria: Ingurumen Osasuna Zerbitzua

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurtze aldia: -

Datuen jatorria: Droga-menpekotasunen Institutoa. Deustuko Unibertsitatea. Datuen oinarria: Euskadi eta Drogak 2012. Osasun Saila. Eusko Jaularitza.

2012 (15-74 urte bitarteko biztanleria)			
Tabakoaren kontsumoa	%	Orotara pertsonak Vitoria-Gasteizen	Orotara pertsonak EAEn
Kontsumo esperimentala / behin edo behin bizitzan zehar	54,4	101.607	896.642
Kontsumoa azken aldian / azken urtean	31,2	58.275	513.910
Gaur egungo kontsumoa	29,3	54.726	483.628
Eguneroko kontsumoa	25,7	48.002	423.676
	100,0	186.778	1.648.942


BIDE-SEGURTASUNA

Gero eta gehiago ibilgailuen mende dauden hiriak eredu bihurtzeak, aldaketa garrantzitsuak eragiten ditu hirien fisonomian eta hiritarren mugikortasun-ereduetan. Garraio-azpiegiturek sarbideak moztu eta zaildu, distantziak handitu eta, bes-

te garraibide batzuen kalterako, ibilgailu pribatuaren erabilera indartu egiten dute. Horrela, areagotu egiten dira bide-segurtasuneko arazoak.


26. Hiri barruko trafiko-istripuen kopurua urteko eta 1.000 ibilgailuko

Datu iturria: Udaltzaingoa
Joera desiragarria: gutxitzea
Neurte aldia: urtero



27. Hiri barruan harrapatutako oinezkoen kopurua urteko eta 10.000 biztanleko

Datu iturria: Udaltzaingoa
Joera desiragarria: gutxitzea
Neurte aldia: urtero



Adierazleak hobetzeko ekintzak eta jarduerak

Bide Hezkuntza

2016an 9 ikastetxek parte hartu zuten hirian egin ziren bi *Road Show* jardueretan. Gazteei trafikoaren arriskuak kontzientzia harraraztea du helburu prestakuntza-ekintzak, eta kale-bideetan zuhurtziaz jotzeak duen garrantziaz ohartaraztea. Emozioen arlotik lantzen da trafiko-istripua; poliziek, suhiltzaileek, osasun-lagileek, senideek eta biktimek parte hartzen dute bertan, hots, istripuetan murgilduta egokitu ohi diren guztiek.

Osasunerako hezkuntza

16 ikastetxetako 44 gelatako 952 ikaslek parte hartu zuten 2015-2016 ikasturteko bigarren eta hirugarren hiru-hilekoetan "Ondo gosaldu" programan, eta, era berean, 23 ikastetxetako 51 gelatako 1093 ikaslek parte hartu dute 2016-2017 ikasturteko lehen hiru-hilekoan "Ondo gosaldu" eta "Hamaiketako eta askaria, indarrak berreskuratzeko" programetan. Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saileko Osasun Publikoaren Zerbitzuak antolatzen ditu programa horiek, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikastetxeei zuzenduta, gazteek elikadura-ohitura osasungarriak bereganatu ditzaten.

2016-2017 ikasturteko lehen hiru-hilekoan, 11 ikastetxetako 18 gelatako 432 ikaslek parte hartu zuten Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saileko Osasun Publikoaren Zerbitzuak antolatutako "Arazorik ez baduzu nahi, ibil zaitez garbi eta txukun" eta "Zain itzazu posturak" programetan. Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako ekimena da, haurrek norberaren nahiz ingurunearen higie-nearekiko jokabide eta ohitura egokiak bereganatu ditzaten, eta jarrera ego-kiak hartu.

Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saileko Osasun Publikoaren Atalak Arabako Ospitale Unibertsitarioko —Txagorritxu— Lo Atalarekin lankidetzan antolatutako "Egizu lo ondo: hobeto biziko zara" programan bederatzi ikastetxetako 29 gelatako 643 ikaslek parte hartu zuten 2015-2016 ikasturteko bigarren eta hirugarren hiru-hilekoetan. Ekimena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago, eta haurrek loaren inguruko jarrera eta ohitura egokiak bereganatzea du xede, horrek garapenean eta ikaskuntzan duen eragina handia izaki.

Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saileko Osasun Publikoaren Atalak antolatutako "Haur istripuak" izeneko programan 14 ikastetxetako 55 gelatako 1262 ikaslek hartu zuten parte 2015-2016 ikasturtean. Haur Hezkuntzako 3. mailakoei eta Lehen Hezkuntzako 1., 2., 3., 4. eta 5. mailakoei zuzenduta dago ekimen hori, eta ikasleek istripu-arriskuak identifikatzen jakitea du xede, eta horiei aurre egiteko ohiturak bereganatzea.

2015-2016 ikasturteko bigarren eta hirugarren hiru-hilekoetan eta 2016-2017 ikasturteko lehen hiru-hilekoan, 37 ikastetxetako 339 gelatako 7911 ikaslek parte hartu zuten programa hauetan: "Baratzean nire lagunekin", "Osasunkume, bizitzaren abentura", "Hordago! Drogarik gabe bizitzearen erroka", "Tabakomendekotasunari aurre hartzea", "Alkohol-mendekotasunari aurre hartzea", "Kalamu-mendekotasunari aurre hartzea", "Legez kanpoko drogak eta psikofarmakoak" eta "Errealitate birtuala". Eskolako prebentzio orokorraren barruko programak dira, eta bizi-ohitura osasungarrietan hezte eta trebetasun eta baliabide personalak eta sozialak garatzea da helburu nagusia. Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Derrigorrezkoaren Ondoko Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago.

2015-2016 ikasturteko bigarren eta hirugarren hiru-hilekoetan eta 2016-2017 ikasturteko lehen hiru-hilekoan, 6 ikastetxetako 24 gelatako 473 ikaslek parte hartu zuten "Legezko eta legez kanpoko drogen arriskuak gutxitzea" programan. Eskolako berariazko prebentzioaren barruko programa da hori, zeinen helburu nagusia mendekotasun-jokabideetatik babesteko faktoreak sustatu eta horiekin lotutako arrisku faktoreak gutxitzea baita. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Derrigorrezkoaren Ondoko Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago.

Gasteiz hiri osasungarrien Espainiako eta Europako sarean.

2013-2018 urteetarako Gasteizko Osasun Garapenerako II. Planean —Osasunaren Mundu Erakundearen Europako Hiri Osasungarrien Sarearen irizpideen arabera landutakoa— sartutako jardueretan lan egiten jarraitu zen 2016an. Hauek izan ziren jarduera-arloak:

- laguntzeko eta zaintzeko gizarte-inguruneak,
- bizitza osasuntsua eta osasunaren inguruko testu idatziak ulertzeko gaitasuna,
- hiri-ingurune fisikoa.

2016an, Osasunaren Mundu Erakundearen Europako Hiri Osasungarrien Sarearen VI. fasean, bertako kide izendatua izan da Gasteiz.

Espainiako Hiri Osasungarrien Sareko kide izaten jarraitu du Gasteizek 2016an.


2015-2019ko Mendetasunen Plana

2016ko ekitaldian, "Gasteizko hirian mendetasunak eta portaeraren antzeko desorekak murrizteko IV. plana" lantzen jarraitu da.

Nekazaritzako elikagaien estrategia

2016. urtean, partaidetza-prozesua bideratu da, Gasteizen Nekazaritza Estrategia Iraunkorra garatzen interesaturik dauden herritar eta kolektiboekin. Prozesuaren helburua bikoitza zen: alde batetik, aurretiazko diagnostikoa balioztatu eta osatzea, eta bestetik, berriz, helburu estrategiko eta espezifikoak nahiz jarduera-jarraibideak zehaztea eskala lokalean. Bost hilabetez garatu da prozesu hori, otsailetik ekainera bitartean; hiru lantegi egin dira, sektore guztiak batera, baita sektorekako hainbat bilera ere. Azkenik, azken partaidetza-lantegi bat egin da azaroan, hausnarketatik ekintzara igarotzeko urratsak definitzeko.

Prozesu horren ondorioz, marko estrategiko bat ezarri da, zein Gasteizerako nekazaritzako elikagaien sistema iraunkorra eraikitzeko oinarriak dokumentuan jaso baita. Jendearen partaidetzarekin definitutako 21 helburu zerrendatzen dira bertan, baita jarduera-ildo posibleak ere. Ildo horien artetik, bere eskumenekoak direnak garatuko ditu Gasteizko Udalak, arlo horretan lehendik martxan dauden beste neurri eta proiektu batzuekin batera. Udalaren Ekintza Plan bat osatuko dute neurri horiek guztiak. 2016ko abenduan kontratatu da horretarako laguntza teknikoa.




INFORMAZIOA, HEZKUNTZA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA



JASANGARRITASUNEN HELBURU OROKORRA:

- GARAPEN IRAUNGARRIARI BURUZKO INFORMAZIOA ESKURA DAGOELA ETA ZABALDU EGITEN DELA BERMATZEA
- ERABAKIAK HARTZEKO PROZESUETAN HERRITARREN PARTE-HARTZEA SUSTATZEA
- IRAUNGARRITASUNAREN ARLOKO HEZKUNTZA BULTZATZEA



28. Ingurumen informazioari buruzko kontsulta kopurua

Ingurumen informazioa eskuratzeko eskubidea erregulatzen duten legeko xedapenek honela definitzen dute ingurumen informazioa: “modu idatzian, ahozkoan, ikusteko moduan edo datu-base moduan uraren, airearen, luraren, faunaren, horiei eragiten dieten edo eragin diezaieketen jardueren eta horiek babestera bideratutako jarduera eta neurrien egoerari buruz eskuragarri dagoen edozein informazio”. Era berean, administrazio publikoei, udalei barne, jendeak eskatzen dien informazio guztia emateko obligazioa ezartzen zaie.


Adierazleak bi azpiadierazle ditu¹: lehenak ingurumen informazio eta dokumentazioa Internet bidez edo CEAko liburutegian eskuratzeko aldiak zenbatzen ditu, eta bigarrenak Udaleko zerbitzu teknikoek jaso eta erantzun dituzten kontsultak neuritzen ditu.

28a. Ingurumen informazio edo dokumentazioaren eskuratzekoak

Datu iturria: Ingurumen Informazioko Sistema (SIAM), udal webgunea eta CINDA (Ingurumen Informazio eta Dokumentazioko Zentroa)

Joera desiragarria: gehitzea

Neurte aldia: urtero




28b. Udaleko zerbitzu teknikoei zuzendutako ingurumen kontsulten kopurua

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saila, CEA eta Informazioaren Teknologien Saila (Herriarrei Laguntzeko Bulegoak, Telefono bidezko Arreta Zerbitzua eta Hiritarren postontzia)

Joera desiragarria: gehitzea

Neurte aldia: urtero




29. Eskola-umeen parte hartzea Vitoria-Gasteizko Udalak antolatutako ingurumen-heziketako jardueretan¹

Gasteizko Udalak urtero eskaintzen dituen ingurumen-heziketako jardueretan parte hartzen duten eskola-umeen kopurua, abian jarritako programa hezitzaileen finkapenaren eta eskola-umeen kolektiboak ingurumenarekiko duen konpromiso-mailaren adierazle da.

Datu iturria: Ingurugiro Gaietarako Ikastegia, AMVISA eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzua

Joera desiragarria: gehitzea

Neurte aldia: urtero



1- Eskolako Agenda 21ean dagoen parte hartzea erantsi zaio adierazle honi. Jarduera hau 2003-2004 ikasturtean hasi zen.

Adierazleak hobetzeko ekintzak eta jarduerak

Mugikortasun Iraunkorraren Europako Astea, 2016

Europar Batasunaren deia erantzunez Gasteizen Mugikortasun Iraunkorraren Europako Astea antolatu den 16. aldia izan da. "Energia mugimenduan" lema aukeratu da 2016ko edizioan, Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planak sustatutako aldaketak gogoan, eta Koroatzearen auzoan birgaikuntza energetikorako SmartEnCity proiektuarekin batera espazio publikoan egingo den eraldaketari ere keinu bat eginez. Irailaren 12tik 22ra bitartean gauzatu zen jarduera-programa, hainbat proposamenekin, hala nola Aldabe kalea oinezkoentzako bihurtzeko entsegu, mugikortasunerako konponbide alternatiboen erakustaldia, eta adin guztietakoei zuzendutako beste hainbat jarduera informatibo, ludiko nahiz hezkuntzaren arloko, ingurumenaren arloan kontzientzia harraraztea helburutzat harturik.

Gasteizen barrena joan-etorriak oinez egiteko behar diren denborak erakusten dituen "metrominutua" argitaratu da

'Ciudades que Caminan' sareak landu du mapa, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren laguntzarekin. "Ciudades que Caminan" sareko kidea da Gasteiz. Iberiar penintsulako hainbat hiri biltzen ditu sare horrek, eta "Ciudad que Camina" saria eman zion 2013an gure hiriri. Orain, azken urteetan saria irabazi duten hirietarako "metrominutu" bana landu du sareak, eta bere webgunean argitaratu. Andre Maria Zuriaren plaza hartzen du abiapuntutzat hiriko mapak, eta bertatik hainbat lekutara oinez iristeko behar den denbora kalkulaten: autobus-geltokira, ospitaleetara, unibertsitatera, Eratzun Berdera nahiz beste edozein lekutara. Hirietako metroen sistemetarako baliatu ohi diren mapen argitasunean eta itxuran oinarritzen da *metrominutua*. Helburua ez da ikuspegi geometrikotik zehatza izatea, ezpada distantziak eta denborak modu argian erakustea. Oinezkoentzako *metrominutu* hori, txirindularientzako *metrominutuarekin* batera, interes handiko tresna da mugikortasun modu aktiboak sustatzeari dagokionez, Gasteizko Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planean ezarritako helburuen ildotik.

Baratzezaintza ekologikoa, gizarte-etxeetan

2010ean sortu ziren gizarte-etxeetako baratzeak, ikasteko eta parte hartzeko espazio gisa, nekazaritza ekologikoa, elikadura osasungarria eta bertako produktuen kontsumoa sustatzeko. 2015eko urriaz geroztik Ingurugiro Gaietarako Ikastegia arduratzen da espazio horiek kudeatzeaz.

Baratze ekologikoei buruzko hiruhileko hastapen-lantegiak eskaini dira 2016an, astean bi ordukoak —haurrentzat ordubetekoak—, eta, hartara, prestakuntza praktikoaren eta teorikoaren bitartez, hiri-baratzezaintza ekologikoari ekiteko nahikoa tresna jarri nahi izan dira herritarren eskura. Bi orduko hamar-hamabi saio izan ohi ditu lantegi bakoitzak. Orobat eskaintzen da haurrentzako lantegi bat, ordubeteko hamaika-hamabi saiokoa, edukiak parte-hartzaileen adinera egokituta.

Gainera, hiri-nekazaritzari buruzko monografiko puntualak ere antolatzen dira. Arlo horretako kontuak ikasteko eta ezagutza areagotzeko lantegi puntualak dira. Hainbat gai jorratzen dira horietan, hala nola hazi lokalak, permakultura, kosmetika jangarria, fruta-arbolen inausketa eta txertaketa, eta hiri-baratzeko elementuak material birziklatuekin eraikitzea.

21 Eskola Agenda - 2015-2016 ikasturtea

2015-2016 ikasturtean Gasteizko 21 ikastetxek garatu zuten 21 Eskola Agenda, eskola-mugikortasun autonomo, aktibo, seguru eta iraunkorraren gaia jorratuz. Apirilaren 19an eta 21ean, ikastetxeak ordezkatzen zituzten ikasleak Aldabeko gizarte-etxean bildu ziren, Agendaren eskola-foroetan, ikasturtean zehar egindako lana berraztertzeko. Eztabaida horren emaitzak txosten orokor batean jaso ziren, eta Gasteizko alkateari, talde politikoei eta udal teknikariei aurkeztu zitzaizen hori maiatzaren 18an, Goiuri jauregian.


Gasteizko Hiri Azpiegitura Berdearen webgunea eguneratu du Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak

Gasteizko hiri-azpiegitura berdeak atal propio eguneratu bat du Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren webgunean, gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez. Azpiegitura Berdearen Estrategiari buruzko informazio zehatza eskaintzen da atal horretan, baita Udalak estrategia hori hedatzeko martxan jarri dituen proiektuei buruzkoa ere. Leku nabarmena eskaintzen zaie bertan dagoeneko martxan dauden ekimenei, hala nola 'azpiegitura berdea, auzoz auzo' ekimenari edo herritar guztien artean Zabalganeko azpiegitura berdeak definitzeko garatzen ari den partaidetza-prozesuari.

Ohiko galderen atal bat ere badu, non hainbat kontzeptu argitzen diren, eta dokumentu- eta erreferentzia-zerrenda bat eskaintzen, gai horretan sakondu ahal izateko. Multimedia-galerian, berriz, bideratzen ari diren jarduketak eta proiektuen irudiak biltzen dira, eta esku hartzen ari den espazioen itxura erakusten.

Etxe Berdeak programa, 2016

2016an, berriro bideratu da Etxe Berdeak programa, zeinen helburua baita familia talde bati beren eguneroko ohiturek ingurumenean eta gizartean duten eraginaz kontzientzia harraraztea, eta etxearen kudeaketa arduratsuagora aldatzeko prozesuan laguntzea. Tresna-multzo bat eskaintzen die programak parte hartzen duten familiei, beren eguneroko bizitzan iraunkorrago izatea lortze aldera, hala nola etxeko kontsumoak aztertzeko auditoretza, gaikako lantegiak —energia, hondakinak, lorezaintza eta baratzezaintza, ura, mugikortasuna eta garraioa, eta kontsumo arduratsua—, etxeko fakturan aurrezteko aholku praktikoa eta errazak, eta jorratutako gaietako bakoitzarekin zerikusia duen elementu sorta ekologikoa bat, aurrezten, birziklatzen, kontsumo arduratsua egiten eta bestetan laguntzeko. Oraingo honetan, Gasteizko 50 familiari zuzendu zaio programa. Gainera, etxeetako kontsumo iraunkorraz kontzientzia harrarazteko, hainbat hitzaldi eskaini dira, arlo horretako gaien inguruan: energia-kontsumoa, birziklatu eta berrerabiltzea, hiriko baratzezaintza, etxeko produktu kimikoak, turismo arduratsua, eraginkortasunaz gidatzea eta beste.




INGURUNE SOZIOEKONOMIKOA



JASANGARRITASUNEN HELBURU OROKORRA:

- HIRITARREN OSASUNA ETA ONGIZATEA SUSTATU ETA BABESTEIA
- INGURUMENA KALTETU GABE ENPLEGUA SUSTATUKO DUEN TOKIKO EKONOMIA SORTU ETA SEGURTATZEA
- KOMUNITATE ITEGRATZAILE ETA SOLIDARIOAK SEGURTATZEA
- BAKEA, JUSTIZIA, BERDINTASUNA, GARAPEN JASANGARRIA ETA KLIMAREN BABESAREN ALORRETAN DUGUN ERANTZUKIZUNA ONARTZEA



GIZARTE-ONGIZATEA

Gizarte jasangarri baten osagai garrantzitsu bat bere hiritarren ongizate orokorra da. Horrek bizi-baldintza onak izatea eskatzen du: etxebizitza seguru eta irisgarria, lanbide interesgarri eta gustukoa, kalitatezko ingurunea (bai naturala eta bai eraikitakoa) eta tokiko erabakiak planifikatu eta hartzeko prozesuetan benetan parte hartzeko aukera. Hiritarrek alderdi horiei buruz duten iritzia euren herriarekiko duten gogobetetasun-tasa orokorraren neurri garrantzitsua da, eta bezaraz, baita jasangarritasun lokalaren adierazle egokia ere.


30. Herritarren gogobetetzea tokiko komunitatearekin

Aspektu desberdinak kontuan hartuz (etxebizitza, zerbitzuak, irakaskuntza, segurtasuna...), euren hiriarekiko gogobeteta bizi diren gasteiztarren ehunekoa adierazten du ondorengo koadro honek.

Datu iturria: Udal Ekobarometroa, 2008. IHOBE (Eusko Jauriaritza)

Joera desiragarria: gehitzea

Neurte aldia: lau urtean behin



• Oso gogobeteta • Aski gogobeteta

GARAPENERAKO LANKIDETZA

Aberastasunaren banaketa desberdinari buruz kontzientziatzea eta jokabide solidarioagoak hartzea funtsezko prozesuak dira garapen jasangarriaren helburuak lortzeko.

Aalborg-eko Gutunak dioten bezala: “gune txiroak dira ingurumeneko arazo gehien dituztenak (zarata, trafikoaren kontaminazioa, aisiarako instalaziorik eza, etxebizitza ez-osasuntsuak, berdegunerik eza) eta, aldi berean, arazo horiek konpontze-ko ahalmen gutxien dituztenak. Aberastasunaren banaketa desberdina da jokabide jasanezinaren kausa eta zailago egiten du aldaketa.”


Garapenean laguntzeko nazioarteko lankidetzeta-jardueretan udalak duen inplikazio-maila adierazten dute aztertutako adierazleek.

31. Garapenerako nazioarteko lankidetzara bideratutako udal aurrekontuaren ehunekoa

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Garapenerako Lankidetzeta Zerbitzua

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: urtero




32. Garapenerako nazioarteko lankidetzara bideratutako udal aurrekontuko per capita gastua

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Garapenerako Lankidetzeta Zerbitzua

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: urtero



DEMOGRAFIA


Batez ere herrialde garatuenetako hiri-biztanleen artean ugalkortasun-tasa jaitsi eta bizi-iraupena handitu egin denez, herrialde horiek errealitate demografiko berriri aurre egin behar diote. Errealitate demografiko horrek eragin handia du asistentzia, lanbide eta ekonomia esparruetan, eta kolokan jartzen ditu, neurri handi batean, oreka demografiko egokia bermatu behar duten jasangarritasun-helburuak.

33. Mendekotasun demografikoko tasa


Gaur egun Gasteizen dagoen mendekotasun demografikoaren maila ebaluatze-ko, adierazleak biztanleria ez-aktiboa (16 urte baino gutxiagokoak eta 65 urte baino gehiagokoak) biztanleria aktiboarekin (16 urtetik 64ra duten lagunak) erlazio-nutzen ditu.

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Informazioaren Teknologien Saila
Neurtze aldia: urtero

Mendekotasun tasa osoa



Mendekotasun tasa biztanle taldeka



■ Zaharrak ■ Gazteak

POBREZIA ETA GIZARTEKO BAZTERKERIA

Gizarteko bazterkeria-mota ugariaren iturria da pobrezia. Gizarteak eskaintzen dituen zerbitzu askotatik kanpo geratzen dira pobreenak. Baldintzarik txarrenetan bizi diren askok ez dute baliabiderik kultur jardueretan parte hartzeko, kirolak praktikatzeko, euren ezaguerak gehitzeko edo gertakari garrantzitsuenekin harremanetan egoteko, zeinen inguruan bizitza sozialaren zatirik handiena antolatzen baita.


34. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten familien ehunekoa

Adierazle honek zera erakusten du, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta deiturikoa jasotzen duten familiek Gasteizen bizi diren familia guztiekiko duten pisua.

Kalkulu berria egin da, urte bakoitzaren abenduan Gasteizen DBE jasotzen zuten bizikidetzak unitateak kontuan hartuta

Datu iturria: 2010. eta 2011. urteetakoak: Gizarte Gaien eta Adinekoen Saila. 2012, 2013 eta 2014 urteetakoak: Lanbide.

Neurtze aldia: urtero



LAN-MERKATUA

Lana helburua eta bitartekoa da gizakiarentzat. Garrantzitsua da ez bakarrik ematen duen ongizate materialagatik, baita norbanakoari bere nortasunaren zentzua, gizartean duen postuaren kontzientzia eta gizartean integratuta egoteko sentimendua ematen dizkiolako ere. Beraz, lana funtsezkoa da bizi-kalitate duina lortzeko. Bai norberarentzat lan egiten bada edo beste norbaitentzat egiten bada, jana, arropak, etxebizitza edo horiek guztiak erosteko aukera ematen duen dirua ematen du lanak.


35. Langabezia-tasa¹

Adierazle honek langabezian dagoen biztanleria aktiboaren ehunekoa aztertzen du.

Datu iturria: EUSTAT Euskal Estatistika Erakundea

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurte aldia: urtero



1- EUSTAT-en Jarduereko Biztanleriaren Inkestatik ateratako datuak. Gasteizko udalerako datu espezifikorik ezean, Arabako Lurralde Historikoari buruzkoak dira. (2012ko oinarria) biztanleria berria birpasatuta ateratako datuak.

Adierazleak hobetzeko ekintzak eta jarduerak

Gizarte zerbitzuen alorreko eskumenen berrantolaketa

Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legeari eta zerbitzuen zorroari egokitu beharra dela eta, Gasteizko udalak eta Arabako Foru Aldundiak elkarren arteko lankidetzak hitzarmen orokorra izenpetu zuten, 2016ko abenduaren 1ean, gizarte zerbitzuen alorreko eskumenak berrantolatze aldera. Arauen doitze hau aplikatzen joateko, zerbitzuak egokitzea ahalbidetuko duten irizpide teknikoak prestatzen hasi gara. Honekin batera, Gizarte Politiken Sailaren Plan Estrategikoa landu dela nabarmendu beharra dago, Gasteizen bizi diren pertsonen autonomia eta gizarte-ongizatea lagundu eta faboratzeko helburuarekin, erantzukizuna, eskumena eta ardura oinarritzat harturik.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Larrialdietarako Udal Zerbitzuak.

Gizarte etxeetako 13 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (OGZ) eta Gizarte Larrialdietarako Zerbitzuak herritarrengandik gertuen dagoen gizarte-zerbitzuen sare publikoa osatzen dute, Gasteizen bizi diren pertsonen autonomia eta gizarte-ongizatea lagundu eta faboratzeko helburuarekin. 2016an, 13 zerbitzu horietatik, guztira 11.886 familiari eman zaie arreta, eta Gizarte Larrialdietarako Zerbitzutik, berriz, 2.192 familiari eman zaie arreta puntualagoa. Gizabanakoei nahiz familiei arreta eskaintzeaz eta baliabide propioak aplikatzeaz gain, programazio komunitario zabala landu dute oinarrizko gizarte-zerbitzuek, eta 273 jarduera garatu, 1.840 pertsonaren partaidetzarekin. Alde batetik, partaidetza sustatu nahi da ekintza horien bitartez, hiriaren potentzial integratzailea optimizatuko duten egiturak sortu eta garatu daitezela faboratuz, eta, bestetik, maila indibidualagoan, konpetentzia soziala bultzatzen dute programa horiek, baliabide eta trebetasun pertsonalak areagotze aldera, hazkunde eta ongizate handiagoa lortzeko.

Adinekoak

Arlo honetan, adinekoen bakardadearen prebentziorako kanpaina azpimarratu behar dago saileko proiektu komunitarioen artean. Kanpaina honen hedapena hiru mailatan egin da batera: hiri mailan (eskuorriak, kartelak, banderatoak, prentsa iragarkiak, autobusen atzeko aldeetako iragarkiak, azalpen-bideoak eta abar); auzo mailan (gizarte zerbitzuen bitartez, eragile sozial eta elkarten mugimenduetarekin bilerak eta harremanak); eta berariazko mailan, azalpen gutuna eta eskuorriak bidali dira bakarrik bizi diren eta gizarte zerbitzuetan arretarik jasotzen ez duten 75 urtetik gorako 1.240 pertsonen etxeetara.

Halaber indartu egin da Adinekoak zaintzen dituzten familiei laguntzeko programa, arreta, kasuen jarraipena eta ezarritako baliabideen kudeaketa hobetu dadin.

Adinekoentzako zentro soziokulturalei dagokienez, hainbat berrikuntza izan da: Lakua-Arriagako zentroko infoteka eta hiri-baratzea abian jartzea, Zaramagan bigarren osasun-parkea jartzea, psikomotrizitate programa zabaltzea, belaunaldien arteko lantegi berria sortzea, eta zentroetako hainbat berrikuntza eta ekipamendu.

Azkenik, eguneko arretako zerbitzu eta egoitzetan aurrera pausak eman dira pertsonengan zentratutako arretaren eremua aplikatzen. Eredu honen bidez kalitateko arreta eta kudeaketa bermatu nahi da, eragile guztien konpromisoa eta ahalduntzea tarteko. Azpimarragarria da prozesu honetan pixkanaka adinekoek, familiek eta erakundek parte hartzen ari direla.

Hautzaroa eta nerabezaroa

Haur eta Nerabeentzako Tokiko Planaren barruan (PLINA) aipagarri dira hainbat arlori buruz egindako prestakuntza ekintzak (haurren inguruko legedi berria, erresilientzia, sexu-abusua...) eta "Aldaketa dakarten aitatasunak" jardunaldiaren antolakuntza. Jardunaldi horretan Aitatasun positibo, erantzunkide, kontziente eta aktiboaren aldeko sentipen adierazpena eta konpromisoa aurkeztu zen, eta hiriko hainbat pertsona ospetsuk izenpetu zuten.

Haurren babesgabetasunaren arloko gizarte-eragileak prestatzeari dagokionez, beste talde batzuk prestatzen jarraitu da, 150 profesionaletik gora prest.

2016an, EHUrekin lankidetzan, gurasotasun positiboaren udal programa prestatzen lan egin da, eta guraso eta seme-alaben arteko indarkeriari buruzko bigarren mailako prebentziorako programa pilotu guztia eskuliburutan jasotzen amaitu da. "Eta zuk, baduzu zer esanik? proiektuarekin ere jarraitu da. Abian jarri zenetik Frantzia, Alemania eta Gasteizko 700 haur baino gehiagorekin lan egin da honako gaien inguruan: elikadura osasungarria, gastronomia, tokiko ekoizpena eta ekoizpen ekologikoa, bidezko merkataritzaren kultura eta merkatua. Lan horren emaitza parte hartu duten hirietan zehar egingo den erakusketa ibiltarian jaso da, eta urtean zehar hiriko hainbat lekutan izango da, eskola patioetan esaterako.

Bestelako jardueren artean, familia-dibertsitatearen inguruko programa aipatu behar da. Honen xedea familia mota desberdinak ikustaraztea da, eta, halaber, familia horiek erronka eta elementu komunak dituztela, kideak egoki zaindu, seme-alabak egoki hazi, hezi eta gurasotasun positiboaren ikuspegitik garatzerakoan.

Genero-indarkeria

2016ko urtarilean "Onartuz" udal zerbitzua sortu zen, genero-indarkeriaren biktime diren emakumeei arreta integrala eta diziplina anitzekoa emateko. Emakume horiei, seme-alabei eta haien kargura dauden pertsonen harrera eta laguntza eskaintzen zaizkie, beren egoeraz ohartu eta erabakiak hartzerik izan dezaten; gizarte zerbitzuen funtzionamendu-protokolo berria eta biktimei laguntza intentsiboa emango dion talde berezia sortu dira horretarako: "*Onarpen*". Talde horren lanak hobekuntza nabarmena dakar genero-indarkeriaren arloko kasuak antzeman eta loturak hausteko eta indarberritzeko prozesuetan laguntzeko garaian.

Bizitegi-bazterketa

80eko urteetan Estatu Batuetan sortutako "Housing first" ereduaren oinarriturik, bizitegi-bazterketa egoera larrian daudenei arreta emateko "Hurbil etxebizitzak" izeneko esperientziarekin jarraitu da Gizarte Politiken Sailetik. Problematika ugari harrapatuta dauden pertsonen etxebizitza bat lagatzea da eredu horren abiapuntu, eta lan-planak beren zirkunstantzia eta erritmo partikularretara egokitzea, lantalde profesional baten laguntzaz. 2010ean bizitegi-bazterketa egoeran dauden pertsonen azterketa -zenbaketa egiten hasi zen, eta ia, urriaren 26tik 27ra bitarteko gauean aldi berean egin ziren zenbaketak EAeko beste 24 udalerritan. Gasteizen 154 pertsonak hartu zuten parte zenbaketa horretan, eta bizitegi-bazterketa egoeran zeuden 32 pertsona aurkitu zituzten.

Gizarteratzea eta laneratzea

Gizarteratze-ibilbideei dagokienez, Gizarteratu izenpean eskaini ziren gizarteratzea lortzeko lanteregi eta ikastaroak ditugu, eguneroko bizimodua eragozpenik

gabe garatzeko sozialki eta pertsonalki nolabaiteko gaitasuna lortu beharrean diren pertsonen zuzenduak, bazterketa-prozesuan erortzeko arriskuari aurre egin ahal diezaizoten. Guztira, 2016an, 24 lantegi egin dira, eta 739 lagunek parte hartu dute bertan.

Enplegurako prestakuntza

E-learning prestakuntza eskaintza: Internet bidezko prestakuntza da, ez aurrez aurrekoa. Enplegurako prestakuntzaren aukerak handitzea du helburutzat, teknologia berriak baliatuz eta kalitateko ikastaroen katalogo zabala eta eguneratua eskainiz. Bi modalitate ditu: i) e-learning - Internet: Ikastaroa Internetarako sarbidea duen edozein informatika-ekipotatik egiten da (etxetik, lanetik...), ordu-tegi murrizketarik gabe; ii) e-learning - CETIC. Ikastaroa CETIC-eko autoprestakuntzarako gelan dagoen informatika-ekipo batetik egiten da, zentroko egutegiaren eta ordu-tegiaren arabera. 2016an, 628 pertsonak 906 ikastaro egin zituzten guztira.

Etengabeko lanbide prestakuntza espezializatua: prestakuntza ekintza horien bidez pertsonen produktzio-baldintza berrietara eta aldaketa teknikoetara egokitzeko aukera ematen zaie, beren kualifikazio maila hobetu eta mantentzeko eta lan merkatuan lehiakorragoak izan daitezten. Gehien bat langabeentzat badira ere, parte-hartzaileek lehendik zuten esperientziarekin edo prestakuntza nahiz profil profesionalarekin lotutako birziklatzea da. Ikastaro laburrak dira, gehienez 100 ordu irauten dutenak. Oraingo ekitaldian, ugariak izan dira IKTen eta berrikuntzen sektorearekin eta eraikuntza eta birgaikuntza iraunkorarekin lotutako ikastaroak. 2016an 18 ikastaro egin ziren, eta 220 lagunek parte hartu zuten.

Jardunaldiak eta mintegiak Jarduera honek enplegurako eta berrikuntzarako aukera berrien zabalpena eta horiei buruzko informazioa ematea du xede, enpresei eta lan merkatuan sartu nahi duten pertsonen jardueraren berri inguruko orientabideak eskainiz. 2016an 22 jardunaldi egin ziren, eta 559 lagunek parte hartu zuten.

Lanerako prestakuntza: lan-munduan txertatzeko aukerak handitzeko ikastaroak, langabezia daudenentzat. Lanbide profil osoak —ahal den neurrian lan merkatuaren beharrei erantzuteko modukoak— bereganatzeko nahikoa prestakuntza eskaintzen diete ikasleei. Enpresetan praktikak egiteko eta profesionaltasun ziurtagiriak lortzeko aukera ematen du. 2016an 432 pertsonak 34 prestakuntza-programatan parte hartu zuten, alor hauetan: industria eta automozioa, informazio eta komunikazio teknologia, pertsona eta komuniteterako zerbitzuak, ostalaritza eta merkataritza, birgaikuntza eta eraikuntza iraunkorra, IKTak, berrikuntza eta enplegu berdea.

Prestakuntza- eta enplegu- programak

2016an ekintza hauek egin ziren:

- Lan orientabiderako jarduerak, bereziki lan-merkatuan sartzeko edo berriro sartzeko aukerak handitzea ahalbidetzen duten enplegagarritasun-faktoreak aintzat hartuz: 1.174 pertsonari eman zitzaizen arreta, banakako eta taldeko orientazio ekintzen bidez eta asistentzia teknikoak emanez, Enplegu Zentroan —norberak enplegua bilatzeko kontsultak egiteko tresnak eskaintzen ditu, baliabide material eta teknikoak, eta orientatzaile baten laguntza—.
- 2016ko Enplegu Foroa, Arabako campusekiko lankidetzan antolatua: esperientzien trukea, ikastaroak, lantegiak, mintegiak, hirian hedatzea aurreikusitako enpresen aurkezpenak, erakundeek lan-merkatuarekin eta enplegu-sorkuntzarekin

lotuta dituzten baliabideen aurkezpenak. Bertaratuen arteko 78 pertsonak hartu zuten parte enplegarritasuna hobetzeko lantegietan. Orobat, 70 orientatzaile profesionalak inteligentzia anitzetan oinarrituriko lanbide orientazioari buruzko saio tekniko batean hartu zuten parte.

- Egonkortasuna sustatzeko udalaren laguntza ekonomikoak: aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzeko, lanaldi osokorako edo partzialerako (gutxienez % 50eko lanaldia), bereziki lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituztenei zuzenduta. Beraz, 2016an abiarazitako kontratazio lan-ildo berri honek kalitateko kontratazioa sustatzea du xede, enpleguaren egonkortasuna bultzatuta. 2016an 58 laguntza eman ziren: horien % 64 45 eta 54 urteko bitartekoak kontratatzeko, eta % 36a, 55 urtekoak.
- Gasteizko nekazaritza eremuetako natura eta kultura ingurunea paisaiaren aldetik egokitzeko programa: enplegu eta prestakuntza programa, 6 hilabetekoa (2016ko maiatzean amaitu zen), RAEP enplegu-zentro bereziak kudeatua. Baztertuak izateko arriskuan zeuden 9 pertsona kontratatzea lortu da.
- Gasteizko 2016ko Eskualdeko Enplegu Planak: Lanbideko kofinantzatutako proiektuak, esku hartzeko ildo ezberdinekin. Guztira 56 enplegu programa egin ziren, eta 149 pertsona kontratatu – lehenengo lana zuten 90 gazte eta gizartetik baztertuta edo baztertuta egoerako arriskuan zeuden 59 pertsona–, arlo hauetan: iraunkortasuna; natur ondarea, paisaia, kultur ondarea eta ondare historikoa berreskuratzea; eraikinen birgaitze energetikoa; gai sozialak; I+G+B, eta energia-eraginkortasuna, besteak beste. Bestetik, Gasteizko enpresei kontratatzeko 308 laguntza eman zitzaion.
- Gizarteratze-enpresei gordetako kontratuen bidez egindako enplegu programak: 2016an hiru programa burutu dira. Etengabeko ikasketaren bitartez, gizartetik baztertuta geratzeko arriskua duten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea dute helburu, ingurumenaren arloko helburuez gain. Hauek izan dira esparruak:
 - "Hiri-hondakin solido berrerabilgarrien prebentzioa eta minimizazioa". Hauek ditu xede: etxeko tresnen bizitza-zikloa luzatzea dela medio, hondakinen sorkuntza prebenitzea, eta zabortegirako diren hondakinen bolumena gutxitzea. 2016an abiarazi zenetik, zortzi pertsonak lortu dute lana: gizartetik baztertuta geratzeko arriskua zuten 7 pertsonak lanaldi osoko urtebeteko lana, eta hondakin solidoak kudeatu eta segurtasunaren eta osasunaren neurriak ikuskatzeko lanbide profil egokia zuen beste batek.
 - "Paisaia egokitzapena eta baratz zaintza, Olarizuko lorategi botanikoaren inguruan", Olarizuko lorategi botanikoko landareen zainketa hobetzeko eta udal ekipamenduen bitartez landare erabilgarri eta mehatxatuen lorategia garatzeko. Gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan zeuden 8 pertsona kontratatu dira, urtebetez (% 80ko lanaldia); Horietaz gain, taldeburu bat (% 80ko lanaldia) eta begirale bat (% 50eko lanaldia) ere kontratatu dira.
 - "Gasteizko udalerriko bide berdeen inguruko paisaiaren egokitzapena eta baso lanak", Gasteizko udalerriko ibilbide eta bide berdeen egoera hobetzeko zein inguru horretako espazio berdeak egokitzeko. Gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden 6 pertsona (% 60 lanaldia, sei hilabetez), taldeburu bat (% 80ko lanaldia) eta begirale bat % 30eko lanaldia) kontratatu dituzte.

Garapenerako lankidetzaz

2.705.258,99 euro bideratu ditu 2016an Gasteizko Udalak garapenerako lankidetzaz, hirian garapenerako lankidetzaren inguruko sentsibilizazioa eta hezkuntza bultzatzera zuzendutakoa barne (% 13). Kopuru horretatik, % 91,2 GGKEek kudeatu dute, % 7,4 Euskal Fondoak —Asociación de Entidades Locales Vascas Cooperantes— eta % 1,4 Gasteizko Udalak berak, zuzenean.

Jarraipena eman zaie 2013an hasitako sei lankidetzaz-proiektu kateatuei, eta hainbat urterako proiektu egonkorrak abian jarri dira: garapenerako hezkuntzaren arloan bi proiektu onartu dira, zein hurrengo hiru ikasturteetan garatuko baitira, eta lankidetzaren arloan, berriz, hiru urteko hainbat proiektu identifikatu dira, edo planifikatu, zeinen aukeraketa 2017. urtearen hasieran egingo baita.

Nabarmendu beharra dago, beste behin ere, AMVISaren lankidetzaz —uraren eta saneamenduaren arloko proiektuetarako diru-laguntzak emateko baterako ildo bat garatu da—, baina baita Hirigintza Sailak edo Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak lankidetzaz-proiektuak baloratzeko orduan eman duten laguntza teknikoa ere.

Era berean, argi ageri da gero eta pisu handiagoa dutela problematika globalek, zein dagoeneko ez baitira mugatzen garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren esparru estura, baizik eta udal jarduera osoan eragiten. Hala gertatzen da bidetako merkataritzarekin, Gasteizko Udalean kontratazio gizartearekiko arduratsua eta iraunkorra egiteko jarraibidearen garapenean aintzat hartzen baita. Baina era berean ikusi da hori errefuxiatuen problematikarekin, hori izan baita, hain zuzen ere, Hezkuntza Zerbitzuaren eta Save The Children Fundazioaren Azoka Txikia Solidarioa programan eta "Giza eskubideak eta sorkuntza artistikoa" programaren barruan Montehermoso kulturunean gauzatu den "Babesik gabe" proiektu arrakastatsuan jorratu den gaia.



INGURUMEN KONTSEILU SEKTORIALA

Ingurumen Kontseilu Sektoriala herritarrek Vitoria-Gasteizko Tokiko Agenda 21aren parte hartzeko organoa da. 2000n sortu zen, Agendaren prozesua babesteko akordio politikoari erantzuteko. Udalaren kontsulta organoa izateko sortu zen, eta hartan, herritarrak daude ordezkaturak, udalerriko gizarte eta erakunde kolektibo nagusien bidez.

Partaidetza organo horren funtzioak, osaera eta funtzionamendu arauak Funtzionamenduko Barne Araudian daude jasota. Barne araudi hori 2004ko abenduaren 2ko ohiz kanpoko bileran onartu zen.

Gaur egun, ia 40 kolektibok hartzen dute parte (auzo elkarteak, talde ekologistak, sindikatuak, unibertsitatea, erakundeak...) eztabaida foro horretan. Haren helburuak hauek dira: Vitoria-Gasteizko udalerriko natura eta hiri ingurumena kontserbatzea, defendatzea eta hobetzea. Urte hauetan, zenbait lan talde sortu dira Kontseiluaren barruan, gai zehatzak aztertzeko:

Uraren taldea

Hondakinen taldea

Parke eta lorategien taldea

Zadorra ibaiaren eta haren inguruko eremuaren taldea

Animalien babeserako taldea

OSOKO BILERAK

Bilera kopurua: 1

Landutako gai nagusiak

- Landutako gai nagusiak:
- 2015eko aurrekontuak
- Aurrerapenak, Gasteizko Biodibertsitatearen Estrategian
- Herritarren Partaidetzaren Planaren egoera
- Kontseiluak agintaldian zehar ingurumen-politikan izan duen eraginaren diagnostikoa

